

**BOLUNTARIOTZA
ETA PARTAIDETZA
SOZIALERAKO
BESTE MODU
BATZUK EAE-N
2023**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

BOLUNTARIOTZA ETA PARTAIDETZA SOZIALERAKO BESTE MODU BATZUK EAE-N 2023

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2023

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako
Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia:

1.a, 2024ko otsaila

Ale-kopurua:

130 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako saila

Internet:

www.euskadi.eus

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Autoretza:

EDE Fundazioa

Diseinu eta Maketazioa:

Komunikazio Zuzendaritza
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila

L.G.:

XXXX

ISBN:

XXXXX

Aurkibidea

SARRERA	5
1. ERREFERENTZIA-ESPARRUA	7
1.1 Boluntariotza eta aktibismo soziala etorkizuna eraikitzen	7
1.2 Boluntariotzaren kontzeptua	7
2. METODOLOGIA ETA LAN-PROZESUA	11
2.1 Unibertsoaren identifikazioa eta azterlanaren xedea	11
2.2 Planteamendu metodologikoa	15
2.3 Mugaketa metodologikoak.....	18
3. EMAITZA NAGUSIAK	19
3.1 Hirugarren sektoreko antolakundeetan diharduten boluntarioak	19
3.2 Partaidetza sozialerako beste modu batzuk	39
4. EMAITZA NAGUSIEN LABURPENA:	59
4.1 Hirugarren sektoreko antolakundeetako boluntariotzari buruzko emaitza nagusiak	59
4.2 Partaidetza sozialerako beste modu batzuei buruzko emaitza nagusiak	61
5. BIBLIOGRAFIA	65
6. ERANSKINA	67
6.1 Galdetegia	67
6.2 Unibertsoa eta lagina: taulak	77

Sarrera

Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzak, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluarekin batera, **ikerketa-proiektu bat** abiatu du, **EAEko boluntariotzari eta partaidetza sozialerako beste modu batzuei buruzko datu kuantitatiboak eguneratzeko**.

Hainbat arau, plan eta estrategiak agerian utzi dute garrantzitsua dela bai boluntariotza sakonago ezagutzea, bai gizarte osoa kontzientziatzea borondatezko ekintzak berezkoak dituen balioen, izaera altruista eta solidarioaren eta aukeren inguruan, argi gera dadin premiazkoa dela herritarrek boluntariotzaren bidez modu aktiboan parte hartzea.

Sail horrek, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluarekin elkarlanean arituz, Boluntariotzaren Euskal Estrategia 2021-2024¹ garatu du; bada, estrategian bertan jasotzen denez, beharrezkoa da “boluntariotzari eta partaidetzari buruzko ikerketa sustatzea”, eta, berariaz aipatzen da aldi horretan boluntariotzak EAEn duen egoerari buruzko estatistika-azterlan” bat hasteko beharra.

Euskal Autonomia Erkidegoan, *Boluntariotza eta partaidetza sozialerako beste modu batzuk EAEn 2017*² da boluntariotza eta partaidetza sozialaren askotariko adierazpideak kuantifikatzen dituen erreferentzia nagusi eta eguneratuen; izan ere, ikerlan horrek, *EAEko boluntariotzari buruzko azterlana: kuantifikazioa eta ezaugarriak 2012*³ azterlanaren lortzari jarraikiz, EAEn boluntariotzan edo partaidetza sozialerako bestelako moldeetan aritzen diren pertsonak dimentsionatu zituen, lehen mailako iturrien bidez.

Bost urte igaro dira lan hori egin zenetik, eta, beraz, zentzuzkoa da une hartan boluntariotzaren gainean plazaratutako zenbakiak eguneratzea. Era berean, partaidetza sozialerako beste modu batzuei buruzko datuak biltzen jarraitzea da azterlan honen helburuetako bat, bestelako jarduera altruistak eta solidarioak egiten dituzten pertsonen bolumena kuantifikatzeko.

Hala, helburu zehatz hauetan aletu daiteke azterlan honen xedea:

- Euskadiko hirugarren sektoreko antolakundeetan dauden, galdu diren eta egon daitezkeen boluntarioak kuantifikatu eta haien profila ezagutzea.
- Partaidetza sozialerako beste modu batzuk garatzen dituzten pertsonak kuantifikatu eta haien profila ezagutzea.

1 Boluntariotzaren Euskal Kontseilua. Boluntariotzaren Euskal Estrategia 2021-2024. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Gasteiz, 2021.

2 EDE Fundazioa. Boluntariotza eta partaidetza sozialerako beste modu batzuk EAEn 2017. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2018. Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/estrategia_voluntariado_2017/eu_def/adjuntos/VOLUNTARIADOCAPV2018_02042018.EU.pdf

3 EDE Fundazioa. EAEko boluntariotzari buruzko azterlana: kuantifikazioa eta ezaugarriak, 2012 Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2012. Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/voluntariado_en_euskadi/eu_situgene/adjuntos/Estudio%20sobre%20voluntariado%20en%20la%20CAPV_eusk.pdf

Dokumentuaren egiturari buruz, hauxe da azpimarratzekoa:

- Txostenaren **lehenengo** atalak azterlanaren oinarri den erreferentzia-esparrua aurkezten du; **bigarren** atalak, berriz, metodologia eta egindako lan-prozesua azaltzen ditu.
- **Hirugarrenean**, emaitza gehien berri ematen da, bi azpiataletan multzokatuta.
 - *Lehenengo azpiatalak* **hirugarren sektoreko antolakundeetan boluntario aritzen diren pertsonen datuak kuantifikatzen ditu**. Pertsona horien profil sozial eta demografikoa xehatzen du, baita gauzatzen dituzten borondatezko lanen ezaugarriak ere.
 - *Bigarren azpiatalaren* helburua da **partaidetza sozialerako beste modu batzuetan engaiatutako populazioa kuantifikatzea** eta egitasmo mota horietan parte hartzen duten pertsonen profila ematea. Zehazki, datu hauek aztertzen dira: antolakundeetako kide izatea, hirugarren sektorekoak ez diren beste antolakunde batzuetan borondatezko lan ordaindu gabea egitea, dohaintza ekonomikoak egitea, jarduera sozial edo politikoetan parte hartzea, komunitatean jarduera ludikoak, kirolekoak, kulturalak edo zibikoak antolatzea eta beste familia batzuei laguntzea.
- **Laugarren** atalak, berriz, analisisian jasotako emaitza nagusien laburpena eta ondorioak biltzen ditu.
- Dokumentuaren amaieran, azterlanaren erreferentziako bibliografia dago, baita eranskinak ere, erabilitako galdetegiarekin eta aztertutako unibertsoaren eta laginaren datu nagusiak laburbiltzen dituzten zenbait taularekin.

1. ERREFERENTZIA-ESPARRUA

1.1 Boluntariotza eta aktibismo soziala etorkizuna eraikitzen

Boluntariotzak eta gizartean parte hartzeko beste moduek balio handia dute pertsonentzat, komunitateetarako, ingurumenerako, ekonomiarako eta, oro har, gizarterako. Gizarte-inklusioa sustatzen duten, kapital soziala sortzen duten eta gizartea eraldatzen duten herritar kritiko eta konprometituen adierazpenak dira; izan ere, gizarte-antolakundeek esparruan edo hortik kanpo boluntariotza-lanetan aritzen direnek berezkoak dauzkate zenbait balio (hala nola konpromisoa, elkartasuna, enpatia eta eskuzabaltasuna). Gainera, boluntariotza ikaskuntza-iturri da boluntario askorentzat, eta gizarteko erronka komunei aurre egiteko irtenbide sortzaile eta berritzaileak eman ditzake.

Alde horretatik, EEGK Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen 2022ko *Boluntariotza: herritarrak Europaren etorkizuna eraikitzen*⁴ irizpenak ondorioztatzen duenez, Europako gizartearen etorkizuna ez dute politikariek eta erakundeek bakarrik eraikiko, gizarte zibileko antolakundeak barne hartuta: hirugarren sektoreko antolakundeek esparruan nahiz hortik kanpo egunero-egunero lan solidarioari denbora eta energia eskaintzen dizkioten boluntarioak ere etorkizuna eraikitzen ari dira.

Irizpen horretan, era berean, EEGKk adierazten du politika publikoek, boluntarioei zuzenean laguntzeaz gainera, laguntza sistematikoa jasotzeko premia islatu behar dutela, eta 2025a Boluntarioen Europako Urte izendatzeko neurriak hartzeko eskatzen dio Europako Batzordeari.

1.2 Boluntariotzaren kontzeptua

Ez dago boluntariotzaren definizio ofizialik, eta terminoa oso lotuta dago beste kontzeptu batzuekin, hala nola asoziazionismoarekin, militantziarekin, aktibismo sozialarekin, partaidetza sozialarekin, mugimendu sozialekin eta abarrekin. Termino horiek, oro har, antolakundeek barruan nahiz kanpoan borondatez jarduteko moduak izendatzeko erabiltzen dira; hau da, pertsonak, guztion ongizatea helburu, beren kabuz erabakita eta irabazi-asmorik gabe egiten dituzten jarduerak dira. Gainera, kontuan izanik eremu honen barruan askotariko jarduera motak sartzen direla eta, era berean, testuinguru eta lurralde bakoitzeko tradizio eta errealitate soziokulturalak ere ugariak direla, boluntariotza eta partaidetza soziala ulertzeko modu asko daude.

Zailtasun kontzeptual horiek, bada, oztopo dira fenomenoaneurtzeko, herrialdeen arteko diferentziak eta antzekotasunak atzematzeko eta borondatezko lana ikusarazi eta haren ekarpen soziala parametro objektiboetara ekartzeko.

⁴ Irizpena, Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearena; gaia: «Boluntariotza: herritarrak Europaren etorkizuna eraikitzen» (ekimenezko irizpena) (OJ C, C/152, 06.04.2022, 19. or., CELEX: <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/TXT/?uri=CELEX:52021E3078>)

2011n, Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE), *Borondatezko lana neurtzeko gidaliburuan*, borondatezko lana definitu zuen, honela: “ordaintzen ez den eta derrigorrezkoa ez den lana da; hau da, pertsonen antolakunde baten bitartez edo beren kabuz ordainsaririk jaso gabe zenbait jarduera egiteko eskaintzen duten denbora da, familiakoak ez diren pertsonen mesedetan egiten den lana”⁵. Nazioarteko konparaziozko ikerkuntzan, definizio hori erabiltzen da antolakundeen esparruan garatzen den boluntariotza eta entitate horietatik kanpo egiten den aktibismoa neurtzeko (azken horri LANEk “zuzeneko lan boluntario” esaten dio⁶).

Handik urte batzuetara, Lanaren arloko Estatistikarien Nazioarteko Hemeretzigarren Biltzarrean (LANE, 2013), ebazpen bat eman zuten⁷, lanaren, okupazioaren eta lan-indarraren azpierzabileraren estatistikei buruzkoa (lanaren definizio berri bat ematen du, ordaindutako lana eta ordaindu gabekoa bereizten dituen, eta lanarekin lotutako datuak biltzeko modua aldatzen du); ebazpen horretan, bada, boluntariotza neurtzeko ahalmena hobetzea da helburuetako bat, boluntariotza eta ordaindu gabeko lanaren beste molde batzuk (adibidez, boluntarioaren familiako kideak zaintzea) bereiziz.

Ikuspegi anglo-saxoian ez bezala —gizarte horietan, pisu nabarmena du ordainik jaso gabe beste familia batzuei laguntzeko lanak, antolakundeen bitartez egindakoaren aldean—, Espainian nahiz EAEn, gizartean modu altruistan parte hartzeko modu bat da boluntariotza, irabazi-asmorik gabeko entitateetan egituratutako gizarte zibil antolatuen bidezkoa, eta horrela islatzen du indarreko legeriak.

Estatuan, Boluntariotzaren urriaren 14ko 45/2015 Legearen arabera⁸, “persona fisikoek garatutako interes orokorreko jarduera multzoari deituko zaio boluntariotza, baldin eta jarduera horiek betekizun hauek betetzen badituzte:

- *Elkartasun-izaera ukan dezatela.*
- *Askatasunez gauza daitezela, egiteko arrazoia obligazio pertsonal bat edo eginbehar juridiko bat izan gabe, eta borondatez onar daitezela.*
- *Ordain ekonomiko edo materialik gabe gauzatu daitezela, hargatik eragotzi gabe ekintza boluntarioa aurrera eramateak boluntarioei sortzen dizkien gastu itzulgarriak abonatzea.*
- *Boluntariotzako erakundeen bitartez garatu daitezela, programa zehatzen arabera eta Espainiako lurraldearen barruan edo kanpoan”.*

Boluntarioei buruzko indarreko Euskal Legeak⁹ modu berean definitzen du boluntariotza, eta, hala, boluntariotzat hartzen du “persona fisikoek aurrera

5 LANE. Borondatezko lana neurtzeko gidaliburua. Geneva: Lanaren Nazioarteko Erakunde, 2011.

6 LANE, Indicator Description: Volunteer Work. Geneva: Lanaren Nazioarteko Erakunde, 2011.

7 LANE, Lanaren, okupazioaren eta lan-indarraren azpierzabileraren estatistikei buruzko Ebazpena, 2013.

8 ESPAINIA. 45/2015 Legea, ekainaren 14koa, Boluntariotzarena. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2015eko urriaren 15ekoa.

9 EUSKADI. 17/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, Boluntarioei buruzkoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 1998ko uztailaren 13koa.

eramaten dituzten interes orokorreko ekimenen multzoa, ekimen horiek honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- *Norberaren probetxurako ezer lortzeko asmorik gabekoak izatea eta elkartasunak bultzatuak izatea.*
- *Borondatezkoak eta askatasun osoz eginak izatea; arrazoia lan-, funtzionariotza- edo merkataritza-harremana ez izatea, ez eta obligazio pertsonala edo betebeharrak juridikoa ere.*
- *Irabazi-asmorik ez duten erakunde bidez eta programa edo egitasmo zehatzei jarraituz eginak izatea.*
- *Ordainsaririk gabeak izatea.*
- *Ordaindutako zerbitzu profesionalak inolaz ere ez ordezkatzeko”.*

Hala ere, boluntariotza ulertzeko bestelako ikuspegiak eta ulerkerak sortu dira azken urteetan, fenomeno horren gaineko ikuspuntu ireki eta zabalago batean oinarritzen direnak, eta barruan sartzen dituzte, besteak beste, beste batzuei zuzenean laguntzeko egiten diren bestelako jarduerak edota mugimendu sozialak. Beharbada, boluntariotza formalaren, hau da, gizarte-erakunde antolaketa-esparruan gauzatzen den horren eta antolakunde horietatik kanpo garatzen den partaidetza sozialeko bestelako adierazpenen arteko bereizketak ekintza altruista horren eginkizuna gutxietsi du.

Boluntariotzaren eta partaidetza sozialaren mugak eta irismena zehazteko asmoz, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren lantalde iraunkorrak boluntariotzaren eta partaidetza sozialeko askotariko moduen definizioa proposatu zuen Estatuko Boluntariotzaren XV. Biltzarrean (Barakaldoko BEC, 2012ko azaroa), bi kontzeptuen arteko konexioak mugatzeko. Hala, haien ustez, partaidetza soziala eremu zabala da, eta borondatezko ekintza hor barruan sartzen da, zeina gizartean parte hartzeko beste modu bat baita, baina ez bakarria. Gainera, azpimarratu zuten partaidetzak eta boluntariotzak elementu komun asko dituztela, baita borondatezko ekintzaren berezko ezaugarriak ere. Hala, partaidetza sozialaren definizio hau proposatu zuten:

“Partaidetza sozialtzat hartzen da eremu publikoan zuzenean edo zeharka eragin nahi duen edozein jarduera, pertsonen ekintza eta bide batetik edo bestetik egiten dutena, nor bere izenean edo edozein herritar-elkarte motaren bitartez.

Partaidetza soziala komunitateko kide izatearen kontzientziatik dator beti, eta, erantzukizuna eta gizartearen garapenean esku hartzeko eskubidea oinarri izanik, kontzientzia horrek komunitatea eraldatu eta hobetzeko ekintza herritarretan aktiboki parte hartzera eramaten ditu zenbait pertsona.

‘Komunitatearen garapena’ da partaidetza sozial horren helburua, baita bitartekoa ere, eta gizarte-eragile askoren ekintzen bidez mamitzen da, ehundura soziala, kontzientziazio soziala eta herritarren arteko harremana eta

elkarrekintza bultzatuz. Hala, funtsezko elementu bilakatzen da gizarte zibila egituratu eta politikan eragiteko, ekintza kolektibotik eratorritako eskakizunak eta proposamenak bideratzen dituelako”.

Bestalde, boluntariotzaren definizio hau proposatu zuten:

“Boluntariotza partaidetza sozialerako bideetako bat da, eta gizartearen ekimenetik sortzen da. Barruan hartzen ditu herritarrek askatasunez eta partaidetza antolatu, solidario, doako eta egonkorraren bitartez gizarte osoaren bizi-baldintzak hobetze aldera gauzatzen dituzten jarduerak.

Boluntariotzak gizartearen beharrei erantzuten die, jarrera inklusibo, kritiko, sortzaile, osagarri eta proaktiboa ardatz izanik, ingurunearekiko konpromiso pertsonal eta kolektiboan oinarrituta.

Boluntariotza partaidetza sozialerako modu bat da; partaidetza sozialaren adierazpen zehatz bat, alegia; baina ez bakarra”.

Geroago, termino horien eremu kontzeptualak mugatzeko mintegi tekniko batean, Zuberok eta Susok¹⁰ proposatu zuten boluntariotzei buruz aritzea, pluralean, boluntariotzari buruz hitz egin ordez; izan ere, askotariko adierazpenak daude eremu honen barruan.

Pluraltasunaren ideia hori ikusarazteko asmoz, “boluntariotzaren etxearen” (edo boluntariotzen etxearen) irudia erabiltzen dute, boluntariotzarako eremu handi baten ideia irudikatzeko, definizio “handi”, zabal eta barneratzaile batean oinarrituta. Gero, etxe horren barruko “gelak” edo eremuak zehazten dituzte, eta, gela horietatik abiatuz, borondatezko ekintzaren benetako pluraltasuna islatzen duten definizio “doituagoak” eta zehatzagoak ematen dituzte. Horrez gain, “espazio komunak” edo partekatuak ere badaude, eta borondatezko ekintzaren hainbat adierazpen elkartzen dira topaleku horietan (trebatzeko, erkatzeko, elkarrengandik ikasteko edo elkarrekin ekiteko).


Irudikapen horren bitartez, boluntario izateko eta boluntariotza gauzatzeko moduen pluraltasuna aitortzea eta balioestea da asmoa. Borondatezko ekintzaren errealitate guztiak lotzeko moduak aurkitu nahi dituzte, moduok baztertu eta hierarkizatu gabe eta baliabideak eta esperientziak partekatuz.

Halaber, partaidetza sozialerako beste modu batzuekin lotzen dute borondatezko ekintza, nahiz eta, berez, Administrazioak eta partaidetza horien errealitateak moduok boluntariotzat jo ez. Mugimendu sozialez hitz egiten da, parte hartzeko adierazpide berriez.

¹⁰ Suso, A., Zuberok, I. Boluntariotza eta partaidetza soziala: kontzeptuen mugak (2014) biltzarraren ondorioak. Hemen eskuragarri: <http://www.plataformavoluntariado.org/ARCHIVO/documentos/recursos/voluntariado-y-participacion-social-delimitacion-conceptual-seminario-tecnico-conclusiones.pdf>

2. METODOLOGIA ETA LAN-PROZESUA

Sarreran adierazi dugun bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko **boluntariotzari** eta **partaidetza sozialerako beste modu batzuei** buruzko informazio kuantitatiboa jasotzea da azterlan honen helburua. Hori dela eta, **metodologia kuantitatiboa** erabili dugu ikerketa egiteko. Orain, azterlanaren emaitzei testuingurua jartzeko gako metodologiko nagusien berri emango dugu:



2.1 Unibertsoaren identifikazioa eta azterlanaren xedea

Boluntariotza eta partaidetza sozialerako beste modu batzuk EAEn 2023 lanaren xedea zehazteko, 2017an lan berean egindako definizioa hartu dugu abiapuntutzat. Lan hartan, premisa gisa ezarri zen boluntariotzaren eta partaidetza sozialaren esparrura sartzea antolakundeetatik kanpoko partaidetza sozialerako bestelako moduak ere, hirugarren sektoreko antolakundeen bidez gauzatzen den boluntariotzaz gainera.

Hirugarren sektoreko antolakundeetan diharduten boluntarioak

Azterlan honen ondorioetarako, **boluntariotzaren** definizioa Boluntarioei buruzko 1998ko ekainaren 25eko Legean jasotakoa izango da¹¹:

“Pertsona fisikoek garatutako interes orokorreko jarduera multzoari deituko zaio boluntariotza, baldin eta jarduera horiek betekizun hauek betetzen badituzte:

- Norberaren probetxurako ezer lortzeko asmorik gabekoak izatea eta elkartasunak bultzatuak izatea.
- Borondatezkoak eta askatasun osoz eginak izatea; arrazoa lan-, funtzionariotza- edo merkataritza-harremana ez izatea, ez eta obligazio pertsonala edo betebeharrak juridikoa ere.
- Irabazi-asmorik ez duten erakunde bidez eta programa edo egitasmo zehatzei jarraituz eginak izatea.
- Ordainsaririk gabeak izatea.
- Ordaindutako zerbitzu profesionalak inolaz ere ez ordezkatzeara”.

11 EUSKADI. 17/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, Boluntarioei buruzkoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 1998ko uztailaren 13koa.

Partaidetza sozialerako beste modu batzuk

Bestalde, partaidetza sozialari dagokionez, kontuan hartuko dugu Boluntarioraren Euskal Kontseiluaren lantalde iraunkorrek Estatuko Boluntarioraren XV. Biltzarrean proposatutako definizioa (Barakaldoko BEC, 2012ko azaroa)¹²:

“Eremu publikoan zuzenean edo zeharka eragin nahi duen edozein jarduera, pertsonen ekintza eta bide batetik edo bestetik egiten dutena, nork bere izenean edo edozein herritar-elkarte motaren bitartez.

Partaidetza soziala komunitateko kide izatearen kontzientziatik dator beti, eta, erantzukizuna eta gizartearen garapenean esku hartzeko eskubidea oinarri izanik, kontzientzia horrek komunitatea eraldatzera eta hobetzera bideratutako ekintza herritarretan aktiboki parte hartzera eramaten ditu zenbait pertsona.”

Zehazki, partaidetza sozialaren modu edo adierazpen hauek aztertu ditugu:



A. Antolakundeetako kide izatea

Elkarte edo talde bateko kide edo afiliatu izateari buruzko datuak bildu ditugu, partaidetzarako modu gisara, antolakunde bateko bazkideak edo afiliatuak hartuta kideztat. Zehazki, honako adierazle hau hartuko dugu kontuan partaidetza sozialerako modu honetan:

- *Antolakundeetako kide izatea (bazkideak edo afiliatuak)*

¹² Partaidetza sozialari eta boluntariorari buruzko lantaldea: Definizio argia eta partekatua lortzeko bidean. Estatuko Boluntarioraren XV. Biltzarra. Euskadi, 2012.

B. Borondatezko lan ordaindu gabea hirugarren sektorekoak ez diren antolakundeetan

Partaidetzarako modu honetan, hirugarren sektorekoak ez diren antolakundeetan borondatezko lan ordaindu gabea egiten duten pertsonen bolumenari buruzko informazioa jaso nahi dugu. Hain zuzen ere, parroketan, zentro erlijiosoetan, sindikatu edo lanbide-elkargoetan edo alderdi politikoetan borondatezko lana egiten duten pertsonen ari gara. Zehatz-mehatz, honako adierazle hau aztertuko dugu:

- *Parrokietan, zentro erlijiosoetan, sindikatu edo lanbide-elkargoetan edo alderdi politikoetan borondatezko lan ordaindu gabea egiten duten pertsonak.*

C. Antolakundeei dohaintza ekonomikoak egitea

Kontuan hartu dugun beste partaidetza-modu bat da entitateei dohaintza ekonomikoak egitea. Azpial honetan, honako adierazle hauek aztertuko ditugu:

- *Askotariko antolakundeei dohaintza ekonomikoak egitea*
- *Dohaintza ekonomikoen erregulartasuna/maiztasuna*

D. Jarduera sozial edo politikoetan parte hartzea

Halaber, euskal herritarrek jarduera edo ekimen sozial edo politikoetan duten inplikazioa aztertu dugu. Zehazki, honako gai hauen gainean egin dugu galde:

- *Produktu edo zerbitzu jakinak erostea edo erosteari uztea, arrazoi etikoak, politikoak, ingurumenekoak... direla eta.*
- *Kanpainaren bat babesteko sinboloak jantzita eramatea edo leku ikusgai batean jartzea (banderak balkoietan, profil-irudia sare sozialetan, eta abar)*
- *Manifestazioetan edo elkarretaratzeetan parte hartzea*
- *Grebetan parte hartzea*
- *Odola ematea edo osasunaren arloko bestelako laguntzak ematea, ordainik jaso gabe.*
- *Administrazio publikoari edo enpresei arrazoi politiko, etiko edo ingurumenekoak tarteko egiten zaizkien eskaerak sinatu edo babestea (eskaerak sinatu edo sortzea online, aurrez aurre, posta elektronikoen bidez, ohiko postaren bidez, sare sozialetan...)*
- *Arropa, mantak edo bestelako gauzak ematea*
- *Hedabideetan iritzi politikoak edo eduki sozialekoak adieraztea (sare sozialetan, blog pertsonaletan, zuzendariei zuzendutako gutunetan eta abarretan informazio politiko eta soziala ematea)*
- *Etxean pertsonak hartzea (Txernobyngo haurrak, errefuxiatuak...)*

E. Komunitatean jarduera ludikoak, kirolekoak, kulturalak edo zibikoak antolatzen parte hartzea

Azpiatal honetan, biztanleek komunitatean (auzoan, herrian edo udalerrian) jarduera ludikoak, kirolekoak, kulturalak edo zibikoak antolatzean zer-nolako partaidetza duten ikertu dugu. Hain zuzen ere, honako elementu hauek aztertu ditugu:

- *Auzoan/herrian/udalerrian jarduera ludikoak, kirolekoak edo kulturalak antolatzen parte hartzea, besteak beste: futbol-talde bat entrenatzea, lasterketak, maratoiak edo bestelako kirol-jarduerak antolatzen laguntzea, egun seinalatuetan laguntzea (hala nola auzoko jaietan, Olentzeroren egunean, San Joan jaian...), jarduera antolatu batean begirale aritzea...*
- *Auzoan/herrian/udalerrian jarduera herrikoiak antolatzen parte hartzea; esaterako, auzolanetan, administrazioak sustatutako partaidetza-prozesuetan (barruti-kontseiluetan, kasu), larrialdietan, babes zibilean edo ekitaldi handietan.*

F. Beste familia batzuei laguntzea

Azkenik, aztertu dugu biztanleriak zenbateraino parte hartzen duen beste familia batzuei laguntza ematen. Atal honetan, biztanleriak familiaz kanpoko pertsonei ordainik gabe, derrigortasunik gabe eta antolakundeetatik at laguntzen ematen duen denbora aztertu dugu. Nabarmendu beharra dugu laguntza mota hau dela bakarra beste partaidetza sozialek ezaugarritzat duten alderdi kolektibo eta antolatua betetzen ez duena. Hain zuzen ere, honako alderdi hauek aztertu ditugu:

- *Etxeko lanetan laguntzea (arropa garbitzea, janaria prestatzea, lisatzea, jostea, eta abar)*
- *Hirugarren bat zaintzen laguntzea; besteak beste, adinekoak, adingabekoak (esaterako, gaixorik dauden haurrak zaintzea gurasoek lanera joan behar dutenean), maskotak (adibidez, bidaiaren bat egin behar denean), eta abar.*
- *Jardueraren batera laguntzea eta bisita egitea; adibidez, erosketak edo izapidereen bat (bankuan, administrazioan...) egiten laguntzea, medikuarenera joatea, pertsonak garraiatzea, eta abar.*
- *Etxeko gauzak konpontzen laguntzea (jario duen txorrota, zarata egiten duen ate bat edo beste zerbait konpontzea)*
- *Laguntza ekonomikoa ematea partikularrei (dirua mailegatzea)*
- *Etxea kudeatzeari buruzko aholkularitza edo aholku profesionala ematea (aholkularitza juridikoa edo ekonomikoa, fakturak kudeatzea, eta abar)*

2.2 Planteamendu metodologikoa

Azterlanaren helburuak lortzeko, **metodologia kuantitatiboa** aukeratu dugu. Metodoak alor sozialaren fenomenoak deskribatzea eta azaltzea du helburu, objektiboki existitzen diren orokortzeetara iristeko asmoz, eta ezagutza sistematiko egiaztagarri, alderagarri, neurgarri eta errepikagarriarekin lotuta dago.

Inkesta

EAE-n bizi diren eta 18 urte edo gehiago dauzkaten gizon-emakumeek **galdetegi** bat bete dute, biztanleriaren lagin adierazgarria bermatuz; horretarako, lurralde historikoari buruzko aldagaien gurutzaketaren arabera kuota ezarri ditugu. Halaber, jarraipena egin diegu elkarrizketatuen sexuaren, adinaren eta udalerraren tamainaren aldagaiei.

Erabilitako galdetegiak 2017koaren berdina da ia, item eta galdera berri batzuk sartu badira ere. Datuak biltzeko, elkarren osagarri diren bi metodo erabili ditugu:

- CAWI (Computer Assisted Web Interview): Interneten lor daitekeen galdetegi elektronikoa baten bidez lortzen dira datuak, datuak biltzeko aplikazio batekin.
- CATI (Computer Assisted Telephone Interview): ordenagailu batek lagunduta telefonoz egindako elkarrizketa batetik lortzen dira datuak.

Lehenik, CAWI bidezko inkesta egin genuen, eta, denbora batera, nahikoa estali gabeko eremuetan edo kolektiboetan (batez ere, 65 urtetik gorakoan artean), CATI bidezkoa.

Laginari buruz, hona hemen aintzat hartu behar diren alderdiak:

- Behin betiko lagina **1.200 pertsonak** osatzen dute, eta, beraz, esan dezakegu estatistikoki adierazgarria dela eta datuak Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriara estrapola daitezkeela, % 95eko konfiantza-mailarekin eta +/- % 2,88ko errakuntza-tartearekin. Landa-lana 2023ko ekainean eta irailean egin genuen.
- Xedea izan da aztertu beharreko populazio osoaren lagin adierazgarria lortzea, unibertsoarekin erlazio proportzionala izango zuena, sexuaren, adinaren, lurralde historikoaren eta udalerraren tamainaren arabera¹³.
- Hala ere, zenbaitetan, datuak multzoan oro har aztertu ez ditugunean, laginaren tamaina ez da nahikoa izan zorrotasuna eta fidagarritasuna bermatzeko; ondorioz, haztapenak egitea erabaki dugu, ziurtatzeko

¹³ Nahiz eta landa-lanean sexuaren, adinaren, lurralde historikoaren eta udalerraren tamainaren aldagaiak kontrolatzen saiatu ginen, datuak biltzen amaitutakoan ikusi genuen laginak ordezkaritza txikia zuela 40 urtetik beherako pertsonen kasuan (batez ere, gizonezkoengan), baita Gipuzkoan bizi zirenen kasuan ere. Horregatik, haztapen-faktore zuzentzaileak aplikatu ditugu analisisian, eta, hala, hiru aldagai horietan oreka berreskuratu dugu. Eranskinean, unibertsoa eta lagina geruzetan nola banatuta dauden jasotzen duten taulak daude.

profil bakoitzaren pisua bat datorrela unibertsioan duen benetako pisuarekin¹⁴.

Iturri osagarriak bildu eta aztertzea

Teknika honen helburua izan da gaia ezagutzeko eta informazioa lortzeko, erreferentziako esparru bat ezarri ahal izateko. Azken kapituluan zerrendatu ditugu erabilitako erreferentzia bibliografikoak.

Dokumentazioa identifikatu eta berrikustean, informazio egoki eta eguneratuaren arabera kokatu ahal izan dugu ikerketaren testuingurua, eta galdetegiaren edukiak zehazteko aukera eman digu horrek. Halaber, erreferentziako ikerlan zaharragoen datuek analisia aberastu dute.

Datuen analisi konparatiboa

Analisian, hainbat iturri erabili ditugu, azterlan honetan jasotako datuak erkatu eta kontrastatzeko. Hona hemen kontuan hartu ditugun erreferentzia konparazio nagusiak:

Euskal Autonomia Erkidegoan:

- *Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria*¹⁵. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Behatokiak 2020an egindako dokumentua. Euskadiko hirugarren sektore sozialaren barruan dauden antolakundeak aztergai dituen txosten zabal bat da. Hau da, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko antolakundeen bidez bakarrik begiratzen dio boluntariotzari.
- 68. *Euskal Soziometroa. Kultura Demokratikoa*¹⁶. Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2018an plazaratu zuen lana, eta erreferentzia konparatiboak atera ditugu bertatik, EAEko biztanleriaren talde sozialen eta elkartearen kideztari dagokionez.
- *Boluntariotza eta partaidetza sozialerako beste modu batzuk EAEn 2017*¹⁷ azterlana, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak egindakoa. Euskadiko boluntariotzari buruzko lehenengo lana da, boluntariotza zein partaidetza sozialerako beste modu batzuk aintzat hartzen dituen.

14 Balio absolutuak zenbatesteko, laginaren datuak populazioaren multzora ustiatu dira. Balioak modu ahalik eta zehatzenean inferitu ahal izateko, lagineko pertsona bakoitzak zenbat biztanle ordeztzen dituen adierazten duten zuzenketa-faktoreak (goratzaileak) erabili ditugu. Hala, biztanleen artean antolakundeetan denbora dedikatzen duten pertsonen kopurua = x laginaren barruan antolakundeetan denbora dedikatzen duten pertsonen kopurua (biztanleria osoa/laginaren populazioa). Goratzaileak kalkulatzeko, kontuan hartu ditugu sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren aldagaietatik eratorritako geruzak. Guztizko zifren zenbatespena egiteko, zenbatespen partzialak batu ditugu, geruza horiek kontuan izanik. Eranskinean, goratzaileen datuak daude.

15 EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN BEHATOKIA. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria. Bilbo: Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Behatokia, 2020. Hemen eskuragarri: https://3seuskadi.eus/wp-content/uploads/LibroBlanco_DEF_2019-2020_eus-comp.pdf

16 Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. 68. Euskal Soziometroa: kultura demokratikoa. Gasteiz: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, 2018. Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/sociometro_vasco_68/es_def/adjuntos/18sv68.pdf

17 EDE Fundazioa. Boluntariotza eta partaidetza sozialerako beste modu batzuk EAEn 2017. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2018. Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/estrategia_voluntariado_2017/eu_def/adjuntos/VOLUNTARIADOCAPV2018_02042018.EU.pdf

Espainiako Estatuan:

- *La acción voluntaria en 2022*¹⁸. Espainiako Boluntariotzaren Plataformak urtero egiten ditu azterlan horiek, kuantifikatzeko Espainian oro har zenbat biztanlek laguntzen duten GKEetan eta, bereziki, boluntariotzan.
- *2018ko apirileko barometroa*, Ikerketa Soziologikoen Zentroarena (CIS)¹⁹. Barometro honetatik zenbait datu konparatibo atera ditugu espainiarrek ekintza sozial edo politikoetan parte hartzeko dituzten beste modu batzuei dagokienez (besteak beste, zenbait produktu erostea edo erosteari uztea arrazoi politiko edo etikoengatik edo ingurumenari laguntzeagatik, grebetan parte hartzea eta manifestazioetan parte hartzea).
- *2017ko azaroko barometroa*, Ikerketa Soziologikoen Zentroarena (CIS)²⁰. Barometroak CISEk argitaratu dituen azken datuak biltzen ditu, Espainiako biztanleriak antolakundeetan eta taldeetan duen kideztari eta parte-hartzeari dagokienez. Espainiako gizarteak partaidetza sozialerako edo politikorako beste adierazpen batzuetan (esaterako, odola ematea) duen parte-hartzeari buruzko datuak ere biltzen ditu lanak.

Europar:

- *Eurostat, Europako bizi-baldintzei buruz (Living conditions in Europe, 2018)*²¹. Partaidetza sozialari buruzko kapitulu bat dauka, gai hauek jorratzen dituena: hiritartasun aktiboa (alderdi politiko baten edo tokiko intereseko talde baten jardueretan, kontsulta publiko batean, protesta batean eta abarretan parte hartzea), boluntariotza formala (antolakunde baten esparruan egiten den borondatezko lana) eta boluntariotza informala (elkarrekiko laguntza edo une jakinetan egiten den boluntariotza indibidualizatuagoa).
- *373. Flash Eurobarometroa. Demokrazia parte-hartzailearekiko konpromisoa*²². 2013ko martxoan argitaratutako azterlan bat da, eta Europako biztanleek irabazi-asmorik gabeko talde eta elkarteetan eta bestelako entitateetan (sindikatuak eta lanbide-elkargoak, kasu) duten kideztza jasotzen du.

18 ESPAINIAKO BOLUNTARIOTZAREN PLATAFORMAREN BEHATOKIA. La acción voluntaria en 2022. Madril: Espainiako Boluntariotzaren Plataforma, 2023. Hemen eskuragarri: <https://plataformavoluntariado.org/wp-content/uploads/2022/11/laaccionvoluntaria-2022.pdf>

19 CIS (IKERKETA SOZIOLOGIKOEN ZENTROA). 3210. zenbakidun azterlana. 2018KO APIRILEKO BAROMETROA. Hemen eskuragarri: https://www.cis.es/cis/export/sites/default/-Archivos/Marginales/3200_3219/3210/es3210mar.pdf

20 CIS (IKERKETA SOZIOLOGIKOEN ZENTROA). 3195. zenbakidun azterlana. 2017KO AZAROKO BAROMETROA. Hemen eskuragarri: http://www.cis.es/cis/export/sites/default/-Archivos/Marginales/3180_3199/3195/es3195mar.pdf

21 EUROPAKO BATZORDEA. Living conditions in Europe. Brusela: Komunikazioko Zuzendaritza Nagusia, 2018. Hemen eskuragarri: <https://ec.europa.eu/eurostat/documents/3217494/9079352/KS-DZ-18-001-EN-N.pdf/884f6fec-2450-430a-b68d-f12c-3012f4d0>

22 EUROPAKO BATZORDEA. TNS Political & Social. 373. Flash Eurobarometroa. Demokrazia parte-hartzailearekiko konpromisoa. Brusela: Komunikazioko Zuzendaritza Nagusia, 2013. Hemen eskuragarri: <http://ec.europa.eu/COMMFrontOffice/publicopinion/index.cfm/Survey/getSurveyDetail/instruments/FLASH/surveyKy/1118>

- *Europako Parlamentuaren 75.2 Eurobarometro Berezia. Boluntariotza*²³. 2011n egin zen, Boluntariotzaren Europako Urtea zela medio, eta europar biztanleek boluntariotza-jardueretan duten partaidetza aztertu zuen.

2.3 Mugaketa metodologikoak

Azterlanaren sarreran aipatu moduan, Euskal Autonomia Erkidegoak, 2012tik, bost urterik behin neurtzen du boluntariotza-jardueretan dagoen parte-hartzea. Halere, aintzat hartu behar dugu edozein aldaketa metodologiko egiten bada (adibidez, galdetegian aldaketak egiten badira edo datuak biltzeko modua aldatzen bada) zuhurtziaz alderatu behar direla inkesta desberdinen emaitzak, nahiz eta gai bera jorratu.

Planteamendu metodologikoan adierazi dugun bezala, 2023an datuak biltzeko bi metodo konbinatu ditugu: CAWI (lehenengo aukera gisa) eta CATI (nahikoa estali ez diren eremu edo kolektiboetarako). 2017an, baina, CATI metodoa baino ez zen erabili. Desberdintasun hori garrantzitsua da, inkestatzailea funtsezkoa izan baitaiteke elkarrizketatuek galdetegia ondo ulertzeko eta, era berean, balitekeelako inkestari CAWI bidez erantzuten dietenek galderak ondo ulertu gabe erantzutea.

Aldaketa metodologiko horiek galdera batzuei eragin ahal izan diete batik bat; adibidez, azken urtean beste antolakunde mota batean (zentro erlijiosoetan, sindikatuetan, lanbide-elkargoetan, alderdi politikoetan...) borondatez eta ordainik jaso gabe emandako denborari buruzko galderari (galdetegiko 9. galdera) edota beste familia batzuetan laguntzeari buruzko galderari (30. galdera).

2023an, gainera, partaidetza sozialerako beste modu batzuei buruzko adierazle berriak sartu dira, eta partaidetza-tasen kalkuluan eragin du horrek. Kasu horietan ere, zuhur jokatu beharko genuke datuak alderatzean.

23 EUROPAKO BATZORDEA. Europako Parlamentuaren 75.2 Eurobarometro Berezia. Boluntariotza. Brusela: Komunikazioko Zuzendaritza Nagusia, 2011. Hemen eskuragarri: http://www.europarl.europa.eu/pdf/eurobarometre/2011/juillet/04_07/eb%2075_2_%20synthese%20analytique%20benevolat_es.pdf

3. EMAITZA NAGUSIAK

3.1 Hirugarren sektoreko antolakundeetan diharduten boluntarioak²⁴

Zenbat pertsona aritzen dira boluntario hirugarren sektoreko antolakundeetan? Zenbat pertsona boluntario izan dira? Zenbat pertsona daude boluntario izateko prest?

Bildutako datuek erakusten dute **Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen % 17 boluntario aritu direla hirugarren sektoreko antolakunderen batean azken urtean** (320.872 pertsona gutxi gorabehera). Datu hori 2017an erregistratutakoa baino handiagoa da, urte hartan biztanleen % 13,4 aritu baitziren mota horretako antolakundeetan. Datu horrek berretsi egiten du 2012tik (erreferentziazko lehenengo datua Euskal Autonomia Erkidegoan) goranzko joera dagoela²⁵.

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen % 17 boluntario izan da hirugarren sektoreko antolakunderen batean azken urtean, 2017an erregistratutakoaren gaineratik (% 13,4).

Unean-unean noizbehinka parte hartzen duten boluntarioak boluntario guztien % 7,6 izan dira 2023an (2017an, % 5,24), eta antolakundeetan laguntzen duten ohiko boluntarioen tasa % 9,4koa izan da (2017an, % 8).

Boluntarioen kopuruak gora egin izanak, zati batean, lotura izan lezake COVID-19aren pandemiaren testuinguruan antolakundeetara boluntarioak sartu eta krisia amaitutakoan boluntariora utzi ez izanarekin.

EAEko datuak Espainiako Boluntarioraren Plataformaren Behatokiak 2022an²⁶ estatuan jasotako datuen gaineratik daude; izan ere, azken horrek kalkulatu du Espainiako populazioaren % 8,2 dagoela jarduera mota horiekin engaiatuta gaur egun. Euskal Autonomia Erkidegoan bezalaxe, oraintsuko boluntariora-tasak goranzko joera duela antzematen da Espainian: 2021ean % 6,6koa zen, eta 2022an % 8,2koa izan da. Aintzat hartu behar da 2021eko tasek, neurri handi batean, COVID-19aren krisiaren eragina izan zutela.

Euskal Autonomia Erkidegoko boluntariora-tasa Europako batezbestekotik zertxobait behera dago, azken erregistroan (2018) biztanleen % 18 baitziren boluntarioak²⁷.

²⁴ Cabe recordar que esta forma de ejercer el voluntariado coincide con la que se recoge en la Ley Vasca de Voluntariado.

²⁵ Metodologiari buruzko atalean adierazi moduan (3.3 Mugaketa metodologikoak), datuak biltzeko metodoen arteko aldeek neurri handian azaldu ditzakete boluntariora-tasetan dauden desberdintasunak.

²⁶ Op. Cit.

²⁷ Eurostatek Europako bizi-baldintzei buruz egindako azterlanaren arabera (Living conditions in Europe, 2018), antolakunde baten esparruan egiten den borondatezko lana da boluntariora formala.

GAUR EGUN DAUDEN, IZAN DAITEZKEEN ETA GALDU DIREN BOLUNTARIOEN PROPORZIOA. EMAITZA OROKORRAK. EHUNEKOAK ETA ABSOLUTUEN ZENBATESPENA. 2023, 2017 eta 2012

	2023		2017		2012	
	%	Zenbatespena absolutuetan	%	Zenbatespena absolutuetan	%	Zenbatespena absolutuetan
Gaur egun dauden boluntarioak	17,0	320.872	13,4	241.907	8,6	157.493
Boluntario potentzialak	22,3	421.569	22,0	329.173	11	202.325
Galdu diren boluntarioak	8,3	156.672	10,0	180.732	9,8	178.965


Galdutako boluntarioek biztanleriaren % 8,3 osatzen dute, eta boluntario izan daitezkeenek, berriz, % 22,3.

Azken urtean antolakundeetan lagundu ez arren aurreko urteetan horretan aritu diren pertsonen bolumena EAeko biztanleriaren % 8,3 inguru izan liteke (% 10 izan zen 2017an). Zenbaki absolutuetan, 156.672 boluntario “galdu dira”, gutxi gorabehera.

Horrez gain, % 22,3 inguru “izan daitezke” boluntario (hau da, gaur egun ez dira antolakunde horietan aritzen, baina etorkizunean parte hartzeko prest egon litezke), eta 2017an erregistratutako datuaren oso antzekoa da hori (% 22). Talde horren barruan, % 2,5 inguru parte hartzeko oso prest daude (46.794 pertsona).

Lurralde historikoaren arabera bildutako datuek adierazten dutenez, Gipuzkoak dauka antolakunde hauetan parte hartzen duten boluntarioen tasarik altuena (% 18,5), eta Gipuzkoa da, halaber, 2017tik hazkunde handiena izan duen lurraldea (% 14tik % 18,5era pasa da). Bizkaiak eta Arabak oso antzeko tasak dauzkate, baina zertxobait txikiagoak (% 16,5 eta % 16,2, hurrenez hurren).

HIRUGARREN SEKTOREKO ANTOLAKUNDEETAN ARITZEN DIREN EGUNGO BOLUNTARIOEN PROPORZIOA. LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERAKO EMAITZAK. 2023. %



GAUR EGUN DAUDEN, IZAN DAITEZKEEN ETA GALDU DIREN BOLUNTARIOEN PROPORZIOA.
EMAITZA OROKORRAK ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERAKOAK. 2023, 2017 ETA 2012. %

	2023			2017			2012		
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Gaur egun dauden boluntarioak	16,5	16,2	18,5	13,2	13,0	14,0	10,4	8,4	8,2
Boluntario potentzialak	23,8	21,8	22,5	20,9	21,3	23,6	14,3	11,6	8,7
Galdu diren boluntarioak	7,1	8,9	7,9	12,9	10,9	7,2	11,8	10,2	8,2

Zer aldagaik eramaten gaituzte hirugarren sektoreko antolakundeetan boluntario aritzera?

Gaur egungo boluntariotza-tasa sexuaren arabera bereizten badugu, **indizea oso antzekoa da gizonen eta emakumeen artean**. Zehazki, gizonen % 17,2 eta emakumeen % 16,9 aritzen dira lan mota hauetan. Dirudienez, datuok berretsi egiten dute 2017an jada gizonen eta emakumeen artean ikusitako joera: boluntariotzari dagokionez, kopuruak parekatzen ari dira.

Boluntariotza-tasetan oreka dago gizonen eta emakumeen artean. Adinaren arabera, gazteek dituzte tasarik altuenak.

Datuak erakusten dute **18 eta 29 urte bitarteko gazteek dituztela boluntariotza-tasarik handienak**. Hala, adin-tarte horretan daudenen % 28,8 aritzen dira boluntario-lanetan. **50 eta 64 urte artekoen** artean dago, berriz, **tasarik baxuena** (% 13,2).

Emaitza horiekin bat, **ikasleen tasak beste guztiak gainditzen** ditu (% 31,3), eta, horren ondoren, landunena dugu (% 18,7). Halaber, **goragoko ikasketak dituztenen artean** (gradu-ikasketak, Lanbide Heziketa edo unibertsitate-ikasketak), **boluntariotza-tasak handiagoak** dira, prestakuntza txikiagoa dutenen artean baino. Joera berbera ikusten da 2012tik.

GAUR EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN PROPERTZIOA. EMAITZA OROKORRAK ETA SEXUAREN, ADINAREN, LAN-EGOERAREN ETA IKASKETA-MAILAREN ARABERAKOAK. 2023, 2017 ETA 2012.

		2023	2017	2012
Guztira		17,0	13,4	8,6
Sexua	Gizonak	17,2	13,6	7,4
	Emakumea	16,9	13,1	9,7
Adina	18-29 urte	28,8	29,9	17,2
	30-39 urte	17,4	10,7	7,0
	40-49 urte	17,9	14,4	6,8
	50-64 urte	13,2	11,9	8,9
	65 urte edo gehiago	14,5	7,5	5,5
Jarduerarekiko harremana	Landuna	18,7	14,4	8,3
	Langabea	14,4	16,6	9,7
	Ikaslea	31,3	30,1	17,6
	Bestelako ez-aktiboa	12,7	9,3	6,6
Ikasketa-mailan	Lehen Hezkuntza edo beheragokoa	10,1	5,3	4,1
	Bigarren Hezkuntza	16,2	15,8	11,4
	Lanbide Heziketa	12,5	15,1	7,5
	Gradu-ikasketak	21,5	16,8	13,0

Nolakoak dira boluntariotzan aritzen diren pertsonak? Zein da haien profil soziodemografikoa?

Sexua

Boluntarioak sexuaren arabera banatzen baditugu, **gizonen eta emakumeen pisua nahiko orekatua dela ikusiko dugu (% 48,5 eta % 51,5, hurrenez hurren)**. Datu horiek, neurri handi batean, 2017koen antzekoak dira.

GAUR EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA. 2023, 2017 ETA 2012. %

Gaur egun dauden boluntarioak	2023	2017	2012
Gizonak	48,5	49,0	35,5
Emakumea	51,5	51,0	64,5

Espainiako Boluntariotzaren Plataformaren Behatokiak 2022an boluntariotzaren gainean egindako azterketak agerian utzi zuen boluntario aritzen diren gizonen eta emakumeen kopurua parekatuta dagoela (% 44 eta % 56, hurrenez hurren), eta adierazi zuen boluntarioen profilak gehienbat emakumezkoa izateari utzi diola²⁸.

Datuek erakusten dute boluntarioen artean gizonen eta emakumeen kopurua orekatuz doala.

Adina

Hirugarren sektoreko entitateetan aritzen diren boluntarioen adina 47,8 urtekoa da batez beste, 2017an jasotakoa baino pixka bat altuagoa (44,4 urte). Emakumeen batez besteko adina gizonena baino zertxobait altuagoa da (49,5 urte emakumeek eta 46 gizonek)..

GAUR EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, ADINAREN ARABERA. % ETA BATEZ BESTEKO ADINA 2017 ETA 2012

Gaur egun dauden boluntarioak	2023	2017	2012
<i>Boluntarioen batez besteko adina</i>	47,8	44,4	48,9
<i>Emakumeen batez besteko adina</i>	46,0	45,0	51,1
<i>Gizonen batez besteko adina</i>	49,5	43,8	49,2
18-29 urte	21,3	28,3	19,3
30-39 urte	13,2	13,5	12,0
40-49 urte	13,2	21,1	15,1
50-64 urte	20,4	22,7	27,2
65 urte edo gehiago	24,1	14,5	26,4
Guztira	100	100	100


Adinaren gaineko datuek erakusten dute **entitate horietan laguntzen duten pertsonak heterogeneoak direla**. Dena dela, boluntario guztien artean, **65 urtetik gorakoak** (% 24,1) eta **18 eta 29 urte arteko gazteak** (% 21,3) **nabarmentzen dira**. Bi adin-taldeek, multzoan, Euskal Autonomia Erkidegoko boluntariotzaren % 45,4 osatzen dute. 2017arekin alderatuta, 40 eta 49 urte arteko boluntarioen kopuruak izandako beherakada nabarmentzen da, % 21,1etik % 13,2ra igaro da eta.

Adinak biztanleria orokorrean²⁹ eta boluntarioen artean duen pisuaren proportzioak alderatuta, balantzea positiboa da gazteenen artean (berezi, 18 eta 29 urte artekoen artean), eta negatiboa 40 urtetik gorakoaren artean.

28 Op. Cit.

29 Eustat. Biztanleen udal-estatistika (2022).

BIZTANLERIA OROKORRAREN ETA GAUR EGUNGO BOLUNTARIOEN BANAKETA, ADINAREN ARABERA. 2023. %



Bizilekua: lurralde historikoa eta udalerriaren tamaina

Boluntario gehienak Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuuetako batean edo neurri ertaineko udalerrietan bizi dira.

Boluntario **gehienak Bizkaian bizi dira** (% 50,1); herenak Gipuzkoan (% 35,4), eta gainerakoak Araban (% 14,5); hortaz, boluntarioraren banaketak bat egiten du EAEko biztanleek lurralde historiko bakoitzean duten proportzioarekin. Datu horiek 2017an jasotako oso antzekoak dira.

Ikusi dugunez, **boluntario gehiago bizi dira hiru hiriburuuetako batean (% 44) edo neurri ertaineko udalerriaren batean (% 40)**. Gainerakoak (% 16,1) 10.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi dira.

GAUR EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, BIZI DIREN LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. 2023, 2017 ETA 2012. %

Gaur egun dauden boluntarioak	2023	2017	2012
Araba	14,5	14,5	15,1
Bizkaia	50,1	51,6	58,7
Gipuzkoa	35,4	33,9	26,1
Guztira	100	100	100

GAUR EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, BIZI DIREN UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA. 2023, 2017 ETA 2012. %

Gaur egun dauden boluntarioak	2023	2017	2012
Txikia (< 10.000 biz.)	16,1	20,7	22,6
Ertaina (> 10.000 biz.)	40,0	44,0	37,9
Hiriburuak	44,0	35,5	39,5
Guztira	100	100	100

Jaioterria

Euskal Autonomia Erkidegoaren egitura soziodemografikoarekin bat, boluntario gehienak Euskal Autonomia Erkidegoan jaio dira (% 84,5). Ehuneko hori nahiko egonkorra da 2017tik.

Dena dela, jatorri atzerritarra duten boluntarioen pisua areagotu egin da, boluntarioen guztizkoan (2017an % 2,7 ziren, eta 2023an % 8,7). Alabaina, jardura hauetan duten pisua txikiagoa da, biztanlerian dutena baino (% 12,6) oraindik³⁰.

GAUR EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, JAIOTERRIAREN ARABERA. 2023, 2017 ETA 2012. %.

Gaur egun dauden boluntarioak	2023	2017	2012
EAE	84,5	85,9	74,6
Estatuko gainerako erkidegoak	6,8	11,4	21,2
Atzerria	8,7	2,7	4,2
Guztira	100	100	100

Jarduerarekiko harremana

Aurreko diagnostikoetako datuetan ikusi genuenaren antzera, **hirugarren sektoreko entitateetan boluntario aritzen diren gehienak landunak dira (% 63,4)**. Azken diagnostikoan, distantzia handiagoa dago landunen eta gainerakoen artean. **Boluntario gehien-gehiengak landunak dira.**

Boluntarioen % 22 bestelako ez-aktiboen taldean daude (hau da, lan egiteko ezgaituta daudenak, erretirata edo aurretik erretirata daudenak, etxeko lanetan aritzen direnak eta lana bilatzen ari ez direnak, ikasleak kanpo utzita). Gainera, % 7 ikasleak dira, eta beste % 7,6 langabeak.

GAUR EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, JARDUERAREKIKO HARREMANAREN ARABERA. 2023, 2017 ETA 2012. %

Gaur egun dauden boluntarioak	2023	2017	2012
Landuna	63,4	50,0	43,1
Langabea (lana bilatzen)	7,6	10,9	14,4
Ikasten	7,0	11,0	7,0
Ez-aktibo eta bestelakoak	22,1	28,1	35,5
Guztira	100	100	100

³⁰ Eustat. Biztanleen udal-estatistika (2022).

Ikasketa-maila

Hamar boluntariorik lauk unibertsitate- edo gradu-ikasketak dituzte³¹. % 17,1ek Lanbide Heziketa egin du, eta % 24,1ek Bigarren Hezkuntza. Lehen Hezkuntzako ikasketak dauzkatena edo ikasketarik ez dauzkatena % 20 dira.

Datu horiek bat datoz 2017an³² boluntariora buruz egindako azterlanarekin: boluntarioen % 39,6k unibertsitate-ikasketak zituen. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuriak³³ ere azaltzen du prestakuntza handiko boluntarioak daudela, eta kalkulatu du boluntarioen % 40,6k unibertsitate-ikasketak dituztela.

GAUR EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, IKASKETA-MAILAREN ARABERA.
2023, 2017 ETA 2012. %

Gaur egun dauden boluntarioak	2023	2017	2012
Landuna	19,8	10,7	32,7
Langabea (lana bilatzen)	24,1	26,2	19,2
Ikasten	17,1	23,5	20,7
Ez-aktibo eta bestelakoak	39,0	39,6	27,4
Guztira	100	100	100

Estatuan, Espainiako Boluntarioraren Plataformak Espainiako boluntarioei buruz argitaratutako azterlanak ere adierazten du boluntarioen profila unibertsitate-ikasketak dituen pertsonarena dela gehienbat³⁴.

Nolakoana lana egiten dute boluntarioek hirugarren sektoreko antolakundeetan?

Antolakunde batean baino gehiagotan laguntzea

Boluntarioen % 46 inguru antolakunde batean baino gehiagotan dabilta laguntzen.

Bildutako datuen arabera, **hirugarren sektorean aritzen direnen % 46,1ek antolakunde batean baino gehiagotan laguntzen dute.** Datu hori 2017an (% 41,8) bildutakoa baino pixka bat handiagoa da, baina 2012koaren antzekoa (% 46,4).

31 Haztapan baten bidez, zuzendu egin dugu laginean ikasketa-maila batzuek zuten gehiegizko ordezkaria. Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleek ikasketa-mailaren arabera duten banaketa eta gure azterlanean hezkuntza-maila bakoitzerako ikusi ditugun boluntariora-tasa espezifikoak erabili ditugu. Horrela, emaitzak doitu ditugu, zehaztasunez islatu ahal izateko zenbat boluntario hartzen duten parte ikasketa-maila bakoitzean.

32 Op. Cit.

33 Op. Cit.

34 Op. Cit.

Era berean, Espainiako Boluntariotzaren Plataformaren Behatokiak 2022an³⁵ plazaratutako datuek erakusten digute boluntarioen % 47k hainbat antolakundetan laguntzen dutela.

GAUR EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, ANTOLAKUNDE BATEAN BAINO GEHIAGOTAN LAGUNTZEN DUTEN KONTUAN IZANIK. 2023, 2017 ETA 2012. %.

Gaur egun dauden boluntarioak	2023	G	E	2017	2012
Bai, antolakunde batean baino gehiagotan laguntzen du	46,1	46,9	45,3	41,8	46,4
Ez du antolakunde batean baino gehiagotan laguntzen	53,9	53,1	54,7	58,2	53,6
	100	100	100	100	100

Antolakundearen jarduera-eremua

Hirugarren sektoreko antolakundeak zer jarduera-eremutan aritzen diren begiratu gero, esan beharra dago **eremu zibikoak biltzen duela pertsona gehien**. Bost boluntariotik batek baino pixka bat gehiagok hautatzen dituzten entitateek hiritarrei oro har edo hiritar batzuei zehazki eragiten dieten loturak, harremanak edo ekintzak sortzen dituzte, eta parte-hartze aktiboa eskatzen dute (auzo-elkarteak, ikasleen gurasoen elkarteak, adinekoen elkarteak, eta abar).

Eremu zibikoak, gizarte-ekintzaren eremuak eta kirol-eremuak mobilizatzen dute boluntario gehien.

Bigarren mailan, **gizarte-ekintzaren eremuak** boluntario ugari biltzen ditu. Zehazki, boluntarioen % 16k baztertuta edo babesgabe geratzeko arriskua duten edo zaurgarritasun berezia izateko arriskua duten taldeen egoera arintzeko entitateetan laguntzen dute. Hirugarrenik, kirol-eremuko antolakundeek boluntarioen % 13,1 mobilizatzen dituzte.

Luzetarako konparazio labur bat eginez gero, ikusiko dugu aldaketa nabarmenak gertatu direla boluntarioen partaidetzan eta hirugarren sektoreko antolakundearen jardun-eremuetan:

- Orain, eremu zibikoko antolakundeek mobilizatzen dute boluntario gehien (zehazki, % 22,6).
- Gizarte-ekintzako antolakundeak gain behera doaz: 2012an, boluntarioen % 35,2 biltzen zituzten, eta gaur egun, berriz, % 16.
- Kirol-eremuko antolakunderen batean parte hartzen duten boluntarioen ehunekoan, berriz, goranzko joera dago (% 2012an % 3,4, eta gaur egun % 13,1).
- Eremu artistiko-kulturaleko antolakundeetan borondatez laguntzen duten pertsonen ehunekoak, berriz, behera egin du zertxobait (2012an boluntarioen % 13,8 ziren, eta gaur egun % 8,6).

³⁵ Op. Cit.

GAUR EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, ANTOLAKUNDEEN JARDUERA-EREMUAREN ARABERA. 2023, 2017 ETA 2012. %.

Gaur egun dauden boluntarioak	2023	2017	2012
Eremu zibikoa	22,6	15,3	17,2
Gizarte-ekintza	16,0	26,6	35,2
Kirola	13,1	8,0	3,4
Garapenerako nazioarteko lankidetzak	10,7	8,5	8,4
Eremu artistiko kulturala	8,6	9,1	13,8
Aisialdia eta denbora libre	7,9	8,3	8,4
Osasuna	5,9	7,1	9,9
Ingurumena	5,6	4,5	2,1
Enplegua	4,6	4,0	-
Giza eskubideak	1,9	2,0	1,6
Beste batzuk	0,7	3,3	-
Ez daki/Ez du erantzun	2,4	3,5	-
	100	100	100

Oharra: kontuan izan behar dugu, 2017an eta 2012an egindako diagnostikoetan ez bezala, ikasleen gurasoen elkarteak eremu zibikora sartu direla, horrek zati batean azaltzen baitu eremu horren ehunekoak izandako igoera.

Badirudi nolabaiteko **erlazioa dagoela antolakundearen jardun-eremuaren eta pertsonen sexuaren artean**. Hala, itxura denez, emakumeak lotuago daude eremu zibikoan lan egiten duten entitateetara, hala nola hauetara: auzo-elkarteak, ikasleen gurasoen elkarteak, emakumeen elkarteak, adinekoen elkarteak eta gutxiengo etnikoen elkarteak (emakumeen % 26,8 eta gizonen % 18,2). Halaber, gehiago hartzen dute parte garapenerako nazioarteko lankidetzara atxikitako entitateetan (emakumeen % 13 eta gizonen % 8,2). Gizon boluntarioak, berriz, gehiago aritzen dira aisialdiarekin eta denbora librearekin lotutako eremuetan (gizonen % 10 eta emakumeen % 5,9) edo enpleguaren sustapenaren, laneratzearen edo ekintzailatzaren inguruko eremuetan (gizonen % 8,7 eta emakumeen % 0,8).

Emakumeen parte-hartzea handiago da eremu zibikoan edo garapenerako lankidetzan, eta gizonek gehiago hartzen dute parte aisialdiaren eta denbora librearen eremuan edo enpleguaren sustapenean.

Itxuraz, boluntarioen adinak ere badu zerikusia aukeratutako antolakunde motarekin. Hala, gazteenak aisialdiarekin eta denbora librearekin lotutako antolakundeetan aritzen dira hein handiagoan, eta nagusiagoek, berriz, askoz gehiago parte hartzen dute gizarte-ekintzan eta arlo zibikoan.

BOLUNTARIOEN BANAKETA, ANTOLAKUNDEEN JARDUERA-EREMUAREN, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA. 2023. %

Gaur egun dauden boluntarioak	Guztira	Sexua		Adina				
		Gizonak	Emakumeak	18-29 urte	30-39 urte	40-49 urte	50-64 urte	65 urte edo gehiago
Eremu zibikoa	22,6	18,2	26,8	26,6	23,9	8,6	21,3	31,7
Gizarte-ekintza	16,0	17,1	14,9	13,2	16,4	7,6	25,9	17,1
Kirola	13,1	12,3	13,9	10,2	12,8	23,2	11,0	8,9
Garapenerako nazioarteko lankidetzak	10,7	8,2	13,0	5,8	3,6	14,6	8,0	17,7
Eremu artistiko kulturala	8,6	7,4	9,7	7,6	4,4	9,8	17,4	3,2
Aisialdia eta denbora librearen	7,9	10,0	5,9	13,4	18,6	7,4	3,8	1,0
Osasuna	5,9	8,2	3,7	3,8	0,0	12,2	6,0	5,3
Ingurumena	5,6	5,5	5,7	2,5	16,6	7,2	6,6	0,0
Enplegua	4,6	8,7	0,8	1,9	3,6	6,2	0,0	10,1
Giza eskubideak	1,9	2,1	1,7	1,0	0,0	2,3	0,0	5,0
Beste batzuk	0,7	1,5	0,0	2,5	0,0	0,9	0,0	0,0
Ez daki/Ez du erantzun	2,4	0,8	3,9	11,4	0,0	0,0	0,0	0,0
	100	100	100	100	100	100	100	100

Entitatea hautatzeko arrazoiei buruzko galdera bat dauka inkestak. Jasotako erantzun gehienek arabera (% 27,3 inguru), **antolakundearen jardun-eremuaren gainean interes pertsonala edukitzeagatik** laguntzen dute (“Askok gustatzen zait nire kultura beste toki batzuetako jendearekin partekatzea eta beste kultura batzuk ezagutzea”; “Gustuko dut kirola egitea eta irakastea”; “Eremu honetan laguntzea gustatzen zait, baita migratzaileei trebatzen laguntzea ere”; “LGTBI kolektibokoa naizelako eta gainerakoek komunitatean duten bizitza hobetu nahi dudalako”).

Gehien aipatu dituzten arrazoietan bigarrenak (% 26,9) zerikusia dauka antolakundearen jardueraren eremuan **laguntzearen, inplikatzaren eta gogobeteta sentitzearen plazerarekin** (“Behar dutenekin harremanak izatea eta haiei laguntzea gustatzen zait”; “Baliagarri sentitzen naizelako eta antolakundeak jendea behar zuelako”; “Besteen alde zerbait egin dezakedala sentitzea gustatzen zait”). Azken horri dagokionez, **justizia sozialean, ideologian eta sinismenetan** oinarrituta hautatu zuten boluntario aritzeko antolakundeak (“Gizartean beharrezkoa dela uste dut”; “Elkarrekiko interesagatik eta betebeharrak moralagatik”; “Justiziagatik eta onberatasunagatik”; “Desberdinkerien aurka borrokatzeko”).

Era berean, ematen duenez, **antolakunde baten erabiltzailea izateak edo izan izanak edota ezagunek, lagunek zein senideek antolakunde batean parte hartzeak** antolakunde horretara bultzatzen du boluntario aritzeko (“Umetatik hartu dudalako parte”; “Familian, beti izan ditugu mugikortasun-arazoak dituzten pertsonak”; “Familiako kide batzuek minbizia eduki dutelako”). Erantzunen % 9k ia arrazoi hori aipatu dute. Erantzunen % 8k, berriz, baieztatu egin dute **hurbila eta ezaguna izateagatik** aukeratu zutela antolakundea (“Herrian hurbila zelako”; “Antolakunde hori iruditzen zitzaidalako hurbilena”; “Sektorean dudan eskarmentuagatik, oso ondo ezagutzen nituen”).

Antolakundea aukeratzeko beste arrazoi bat da (erantzunen % 6 inguru) **senideak edo lagunak antolakunde horretan boluntario** aritzea (“Lagunengatik”; “Senideengatik”; “Alabak bertan dabilzalako”).

Beste kasu batzuetan, antolakundearen jarduera-eremuak **zerikusia dauka boluntarioen ikasketekin edo lan-jarduerarekin** (“Nire lan-eremuan askotan egiten dudalako topo paziente horiekin”; “Nire lanbideagatik, laguntzen jarraitzeko modu bat delako”).

Horiez gainera, antolakundea hautatzeko beste arrazoi batzuk ere jaso ditugu; esaterako, bizileku duten auzoa edo herria hobetu nahi izatea, antolakundearen bazkide izatea (kasualitatez) eta antolakundea gustuko izatea edo antolakundearekin identifikatuta sentitzea. Hala ere, erantzun horiek ehuneko txikiagoak izan dituzte.

Lankidetzaren mota

GAUR EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, LANKIDETZA MOTAREN ARABERA.
2023, 2017 ETA 2012. %

Gaur egun dauden boluntarioak	2023	2017	2012
Aldizkako lankidetzaren mota	44,5	39,2	16,7
Ohiko lankidetzaren mota	55,5	60,8	83,3
	100	100	100


Hirugarren sektoreko antolakundeetan boluntario aritzen diren hamar pertsonatik lau baino pixka bat gehiago aldizka aritzen dira; hau da, antolakundearen jarduera zehatzetan laguntzen dute, laguntzaileak behar diren une jakinetan. 2012tik, indartu egin da une jakinetan parte hartzeko joera hori.

Modu egonkorrean aritzen diren emakumeen proportzioa gizonena baino pixka bat handiagoa da (% 57,2 eta % 53,8, hurrenez hurren). Adinari erreparaturik, 18 eta 29 urte bitartekoek dute aldizkako lankidetzaren ehunekorik handiena (% 72,7). Ohiko boluntariora pixkaka areagotzen da, boluntarioen adinak gora egin ahala.

GAUR EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, LANKIDETZA MOTAREN, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA. 2023. %

Gaur egun dauden boluntarioak	2023	Sexo		Edad				
		Gizonak	Emakumeak	18-29 urte	30-39 urte	40-49 urte	50-64 urte	65 urte edo gehiago
Aldizkako lankidetzak	44,5	46,2	42,8	72,7	64,5	41,1	32,8	24,4
Ohiko lankidetzak	55,5	53,8	57,2	27,3	35,5	58,9	67,2	75,6
	100	100	100	100	100	100	100	100

Antolakundean parte hartzeko modalitatea



Boluntarioria, gehienbat, aurrez aurrekoa da. **Hirugarren sektoreko antolakunderen batean boluntario aritzen diren hamar lagunetik zazpi aurrez aurre bakarrik** laguntzen dute; boluntarioen % 8,3k, online bakarrik, eta gainerakoek aurrez aurreko modalitatea eta lineakoa txandakatzen dituzte (% 20,4k).

Dirudenez, gizonek prestasun handiagoa dute online boluntariorian aritzeko (% 10,6 eta % 6,1); emakumeek, berriz, ehuneko handixeagoa dute aurrez aurreko modalitatean (% 73 eta % 69,6). Adinari dagokionez, 18 eta 29 urte arteko gazteek erabiltzen dute gehien online modalitatea; adin horretako lau lagunetik bat modalitate horretan soilik aritzen da boluntario-lanetan (% 23,4). Gainera, nahiz eta aurrez aurreko boluntarioria adin-tarte guztietan gailendu, boluntario askotxok eskaintzen diote denboraren zati bat urrutiko boluntariorizari (gazteenen % 40k gutxi gorabehera, eta zaharreneen % 23k).


GAUR EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, LAGUNTZA-MODALITATEAREN, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA. 2023. %

Gaur egun dauden boluntarioak	2023	Sexua		Adina				
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	18-29 urte	30-39 urte	40-49 urte	50-64 urte	65 urte edo gehiago
Aurrez aurre	71,3	69,6	73,0	60,1	71,4	77,4	70,0	77,0
Online	8,3	10,6	6,1	23,4	6,2	2,3	8,6	1,0
Aurrez aurre eta online	20,4	19,9	20,9	16,4	22,4	20,3	21,4	22,0
	100	100	100	100	100	100	100	100

Egia izan arren aurrez aurreko boluntarioria dela oraindik modalitate nagusia, datuek aditzera ematen dute lineako edo urrutiko kanalek partaidetza sozialerako modu berriak ekartzen ari direla eta gero eta hedatuago daudela. Are, sare sozialen eraginez, online modalitatara lotutako aldizkako boluntarioria indartzen ari da, pertsonak beren kabuz antolatzeko aukera ematen dutelako. Fenomeno hori, bereziki, belaunaldi gazteenentzat da erakargarria.

Alabaina, lineako boluntarioria partaidetza sozialean bilakaera ona izaten ari bada ere, aldaketa esanguratsuak gertatu dira boluntarioen profilean. Lineako boluntarioaren profilari erradiografia azkarra egiten badiogu, ikusiko dugu gaztea dela (% 60,3), astean ordubete baino gutxiago eskaintzen diola boluntariorizari (% 81,9), gehienez ere astean 1 eta 5 ordu bitartean (% 18,1), eta batez ere sare sozialak, webak edo komunikabideak kudeatzen dituela (% 32,7) edo kudeaketa- eta administrazio-lanak egiten dituela (% 22,5).

GAUR EGUN ONLINE MODALITATEAN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, SEXUAREN, ADINAREN, ESKAINITAKO DENBORAREN ETA ZEREGINEN ARABERA. 2023. %



Boluntariotzari eskainitako denbora

Hirugarren sektoreko antolakundeetan ohikotasunez laguntzen duten hamar lagunetik seik (% 60,6k) astean 1 eta 5 ordu bitartean eskaintzen dizkiote jarduera honi. Datuek, halaber, esaten dute kontsultatuen % 17k 5 eta 10 ordu artean eskaintzen dituztela eta % 9,4k 10 ordu baino gehiago. Pertsona horien gutxi gorabehera % 12,5ek ordubete baino gutxiago eskaintzen diote boluntariotzari. Oro har, astean ordubete baino gutxiago ematen duten pertsonen kopurua handiagoa da 29 urtetik beherakoen artean (% 37; biztanleria orokorraren ehuneko % 12,5 da).

GAUR EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, BOLUNTARIOTZARI ESKAINITAKO DENBORAREN ARABERA. % ETA BATEZ BESTEKO DEDIKAZIOA, SEXUAREN ARABERA. 2023, 2017 ETA 2012. %

Gaur egun dauden boluntarioak	2023	2017	2012
Astean ordubete baino gutxiago	12,5	3,5	6,4
Astean 1 eta 5 ordu bitartean	60,6	51,4	61,7
Astean 5 eta 10 ordu bitartean	17,0	27,8	23,5
Astean 10 ordutik gora	9,4	17,3	8,4
ED/EE	0,4	0,0	0,0
Guztira	100	100	100

Alderaketa eginez, jarduera honi astean bost ordu baino gutxiago eskaintzen dizkioten boluntarioen pisua igo egin da, astean bost ordu baino gehiago sartzen dituztenen kalterako.

Adinaren arabera, datuek egiaztatu egiten dute gazteenek (18 eta 29 urte bitartekoek) proportzio handiagoan eskaintzen diotela boluntariotzari ordubete baino gutxiago astean (% 37k).

GAUR EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, ESKAINITAKO DENBORAREN, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA. 2023. %

Gaur egun dauden boluntarioak	Guztira	Sexua		Adina				
		Gizonak	Emakumeak	18-29 urte	30-39 urte	40-49 urte	50-64 urte	65 urte edo gehiago
Astean ordubete baino gutxiago	12,5	16,6	8,9	37,0	5,1	11,1	22,0	0,0
Astean 1 eta 5 ordu bitartean	60,6	49,6	70,3	16,1	35,9	65,1	75,0	67,5
Astean 5 eta 10 ordu bitartean	17,0	24,9	10,1	32,8	32,4	19,9	2,9	16,7
Astean 10 ordutik gora	9,4	8,9	9,9	14,1	26,7	3,9	0,0	14,4
ED/EE	0,4	0,0	0,8	0,0	0,0	0,0	0,0	1,3
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100

Egiten dituzten zereginak

Hamar pertsonatik ia lauk zuzenean bakarrik esku hartzen dute (hau da, zuzeneko arreta ematen dute, jardueretan laguntzen dute, pertsonekin edo taldeekin hainbat jarduera egiten dituzte...).

Boluntarioen erdiek baino gehiagok zuzenean esku hartzen dute kolektiboekin.

Boluntarioen % 13, zuzenean esku hartzeaz gain, entitateen administrazioan eta kudeaketan ere aritzen dira, eta % 20,6 administrazioaz eta kudeaketaz arduratzen dira soilik. Gainerakoek sare sozialak, webguneak edo komunikabideak kudeatzen dituzte (% 9,4k), edo entitatea komunikabideetan, koordinakundeetan edo sareko lantaldeetan ordezkatzen dute (% 8,8k), edo, neurri txikiagoan, mantentze-lanak egiten dituzte instalazioetan edo ekipoetan (% 4,5ek).

GAUR EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, EGITEN DITUZTEN ZEREGINEN ARABERA. 2023, 2017 ETA 2012. %

Gaur egun dauden boluntarioak	2023	2017	2012
Kudeaketa eta administrazioa	20,6	15,6	21,7
Zuzeneko esku-hartzea	39,5	57,5	68,8
Kudeaketa eta administrazioa eta zuzeneko esku-hartzea	13,0	25,2	9,4
Mantentze-lanak	4,5	1,7	-
Ordezkaritza-lanak	8,8	-	-
Sare sozialen, webaren eta komunikabideen kudeaketa	9,4	-	-
Beste bat	4,1	-	-
Guztira	100	100	100

Oharra: kontuan hartu behar da kategoria batzuk (ordezkaritza-lanak eta sare sozialen, webaren eta komunikabideen kudeaketa) 2023rako galdetegira sartu direla eta, hortaz, lan horiek ez zirela aintzat hartu 2012ko eta 2017ko galdetegiaren.

Datu horiek erakusten dute zuzenean esku hartzen duten pertsonen ehunekoak jaitsi egin dela 2017aren aldean (% 57,5 izan zen orduan) eta, aldi berean, antolakundeen administrazioaz eta kudeaketaz arduratzen direnena, berriz, igo egin dela.

Azpimarratu egin behar dugu sexuaren araberako diferentziak daudela, emakumeek proportzio handiagoa baitute kudeaketan eta administrazioan (% 24,8 emakumeak dira, eta % 16,2 gizonak). Adinari dagokionez, gazteenak aritzen dira gehienbat sare sozialen, webaren edo komunikabideen kudeaketa-lanetan; bereziki, 18 eta 29 urte artekoak (bostetik bat lan horietaz arduratzen da). 65 urtetik gorakoen zereginak, batik bat, zuzeneko esku-hartzean (% 46,9), kudeaketa- eta administrazio-lanetan (% 27) eta ordezkaritza-lanetan (% 13) oinarritzen dira.

GAUR EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, EGITEN DITUZTEN ZEREGINEN, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA. 2023, 2017 ETA 2012. %

Gaur egun dauden boluntarioak	Guztira	Sexua		Adina				
		Gizonak	Emakumeak	18-29 urte	30-39 urte	40-49 urte	50-64 urte	65 urte edo gehiago
Kudeaketa eta administrazioa	20,6	16,2	24,8	25,8	9,1	21,8	14,1	27,0
Zuzeneko esku-hartzea	39,5	36,8	42,1	39,5	42,6	32,6	36,0	46,9
Kudeaketa eta administrazioa eta zuzeneko esku-hartzea	13,0	16,1	10,0	8,1	6,2	21,0	25,0	3,8
Mantentze-lanak	4,5	6,2	3,0	0,0	8,0	5,6	8,6	2,2
Ordezkaritza-lanak	8,8	7,2	10,3	3,8	16,8	4,9	8,0	13,0
Sare sozialen, webaren eta komunikabideen kudeaketa	9,4	10,3	8,5	20,3	13,9	11,8	3,6	0,0
Beste bat	4,1	7,3	1,2	2,5	3,5	2,3	4,7	7,1
Guztira	100	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Egiten duten jarduerarekiko asebetetzea

Oro har, boluntarioak egiten duten jarduerarekin pozik daudela esan dezakegu. **Boluntarioen % 93,6 pozik edo oso pozik daude egiten duten borondatezko lanarekin.** Datu horiek 2017an jasotakoan oso antzekoak dira, urte hartan asebetetze-ehunekoa % 96 ingurukoa izan baitzen.

Egiaztatu dugu dituztela egiten duten jarduerak gogobetetzen dituela boluntarioak.


GAUR EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, EGITEN DUTEN JARDUERAREKIKO ASEBETETZEAREN ARABERA. ASEBETETZEA BATEZ BESTE ETA 2023, 2017 ETA 2012. %.

Gaur egun dauden boluntarioak	2023	2017	2012
BATEZ BESTEKO ASEBETETZEA	8,4	8,4	8,0
Ez dago batere pozik	0,0	1,4	0,5
Ez dago pozik	1,7	0,6	0,5
Berdin zaio	4,8	2,0	2,6
Pozik dago	17,2	22,6	28,7
Oso pozik dago	76,4	73,6	67,6
Guztira	100,0	100,0	100,0

Batezbestekoaren balioak erakusten digu gogobetetzea 8,4koa dela 0tik 10era bitarteko eskalan eta, beraz, 2017an bezalakoa dela eta 2012tik hamarren batzuk igo dela (8,0).

Emakumeak gizonak baino pixka bat asebateago daude egiten duten borondatezko lanarekin (8,5 eta 8,3 puntu, hurrenez hurren). Era berean, asebetetzeak eta adinak korrelazio positiboa dute. Adinean gora egin ahala, asebateago daude egiten duten borondatezko lanarekin (18 eta 29 urte artekoek, batez beste, 8 puntu eman dituzte, eta 65 urtetik gorakoek 9,1). Azpimarratzekoa da, gainera, antolakundeetan ohikotasunez laguntzen dutenak gogobeteago daudela (8,8 ohiko boluntarioetan eta 8 aldizkako boluntarioetan).

HIRUGARREN SEKTOREAN EGITEN DUTEN JARDUERAREKIKO BATEZ BESTEKO ASEBETETZEA. EMAITZA OROKORRAK ETA SEXUAREN, ADINAREN ETA LANKIDETZA MOTAREN ARABERAKOAK. 2023. BATEZBESTEKOAK



Etorkizunerako asmoak

Lau boluntariorik hiruk baieztatzen dute etorkizun hurbilean antolakundeetan laguntzen jarraituko dutela. Boluntarioen % 15,4k onartzen dute boluntarioria uztea pentsatzen dutela zenbaitetan, eta % 8,3k uztea erabaki dute jada. Aurreko urteekin alderatuta, datuok desberdinak dira, boluntarioen % 25ek gutxi gorabehera adierazi baitute boluntarioriaz uko egitea pentsatu edo erabaki dutela (aurrekoetan, % 10 ziren).


Lau boluntariorik hiruk uste dute datozen urteetan boluntario-lanean jarraituko dutela.

GAUR EGUN DAUDEN BOLUNTARIOEN BANAKETA, ETORKIZUNERAKO ASMOEN ARABERA. 2023, 2017 ETA 2012. %.

Gaur egun dauden boluntarioak	2023	2017	2012
Datozen urteotan, boluntario-lanean jarraituko dut	76,0	90,0	90,8
Batzuetan, boluntario izateari uztea pentsatzen dut	15,4	8,3	5,8
Ziurrenik, boluntario izateari utziko diot laster	8,3	1,7	3,4
ED/EE	0,2	-	-
Total	100	100	100

Ez dugu alde handirik aurkitu boluntario-lanean jarraituko dutela uste duten gizonen eta emakumeen ehunekoen artean (% 74,3 eta % 77,7, hurrenez hurren). Adinaren arabera, badirudi borondatezko lanean jarraitzeko asmo irmoagoa dutela 50 urtetik gorakoek. Bestalde, ikusi dugu borondatezko lanean jarraituko dutela uste dutenen ehunkoa handiagoa dela ohikotasunez aritzen diren boluntarioen artean (% 82,2).

BOLUNTARIO-LANEAN JARRAITUKO DUTELA USTE DUTEN PERTSONEN BANAKETA. EMAITZA OROKORRAK ETA SEXUAREN, ADINAREN ETA LANKIDETZA MOTAREN ARABERAKOAK. 2017 %



Zein dira borondatezko lana egiteko oztopo nagusiak?

Galdetegiko beste galdera baten helburua zen pertsonen borondatezko lanik ez egiteko arrazoen gaineko informazioa biltzea. Jasotako datuek adierazten dute **denbora falta dela horretan aritzeko eragozpen** nagusia. Boluntario ez direnen artean, hamarretik lauk, gutxi gorabehera, arrazoi hori eman dute. Pertsona askok adierazi dute ezin daitezkeela boluntario aritu, familian erantzukizunak dauzkatelako edo familia-eremuan lagundu eta zaindu egin behar dutelako (“Ez daukat boluntario aritzeko astirik”; “Ez daukat denbora libre askorik, alabak zaindu behar ditut eta”; “Adineko bat zaindu behar dut, eta ez daukat boluntario aritzeko astirik”; “Biloben eta familiaren artean, ez daukat atsedunik”), baina baita lan-eremuan ere (“Lan egin ondoren, ez daukat denbora nahikoa, eta oso nekatuta egoten naiz”; “Ez daukat astirik, lanagatik”; “Bi lan dauzkat, eta ezin dut gauza gehiago egin”).

Atzetik gehien aipatu duten arrazoia (gutxi gorabehera, erantzunen % 20) **adina izan da; askok nagusiegiak direla uste dute edo osasun-arazoak dauzkate** (“Orain ez nago horretarako, osasuna lehenik”; “Adinagatik eta nekeagatik”; “Adinagatik”; “Ez daukadalako osasunik niri neuri interesatzen ez zaidan zerbaitetan sartzeko”; “Zaharra naiz kontu horietarako”; “Iraganean egin nuen, eta orain ez daukat adinik”).

Denbora falta da borondatezko lanerako denborarik ez hartzeko arrazoi nagusia. Adinak (norbere burua nagusiegizat hartzeak) eta horren ondoriozko osasun-arazoak eta ekimen edo interes faltak ere zailtzen dute jarduera horretan aritzea.

Pertsona ugari (erantzunen % 16,5, gutxi gorabehera) **ekimen falta** aipatu dute, **borondatezko lanari eta egiten diren jardueri buruzko interesik eza** (“Motibazio falta”; “Ez daukat gogorik”; “Ez daukat behar den motibaziorik”; “Ez dut uste merezi didanik”; “Boluntariotzak ez nau erakartzen”).

Askoz ere neurri txikiagoan, kontsultatutako pertsonak bestelako arrazoiak eman dituzte boluntariotza-jardueran ez hasteko; hala nola **irabazi-asmorik gabeko antolakundeekiko konfiantzarik eza** (“Antolakunde gehienak gezurretakoak dira, edo oso itxiak”; “Ez dut sinesten boluntariotza-kontuetan”), **besteen zaintzaren inguruko arrazoi familiarak edo pertsonalak** (“Gurasoak nagusi dauzkat, eta nire denbora guztia behar dute”; “Familiaz arduratzen naiz”) eta **boluntariotzan aritzeko proiektu edo entitate zehatzik identifikatu ez izana** (“Ez nau ezerk betetzen”; “Ez naiz inongo elkartetan ere identifikatuta sentitzen”; “Lehenik, baliagarri izango naizen toki bat aurkitu behar dut”).

Badira zenbait desberdintasun adinen artean, borondatezko lana egiteko eragozpenei dagokienez. Izan ere, hein handi batean, zailtasun horiek norberaren bizi-zikloaren unearekin lotuta daude.

- ✓ Hala, **gazte gehienek (18 eta 29 urte artekoek)** denbora falta aipatu dute ez egiteko (% 39,7), edo ez dute interesik erakutsi orain arte (% 25,2).
- ✓ Bestalde, **30 eta 39 urte bitartekoek** neurri handiagoan aipatu dute denbora falta, lanarekin edo familiarekin (adingabeko seme-alabak...) lotutako erantzukizunak dituztelako (% 57,3).
- ✓ **40 eta 49 urte bitartekoek** denbora falta aipatu dute gehienbat (% 48,5), eta, bigarren arrazoi gisa, horretan pentsatu ez dutela (% 21,8).
- ✓ **50 eta 64 urte bitartekoek** adierazi dute ez direla boluntariotzan aritzen denborarik ez dutelako nagusiki (familiarrekin lotutako erantzukizunak dituztela edo senideak, bilobak edo beste zaindu behar dituztela, besteak beste) (% 49,8). Halaber, adin-tarte horretako pertsona askok esan dute ez dutela horretan pentsatu (% 16,1), baina adinari edo osasunari egindako aipamenak ere agertu dira parte hartzeko eragozpen gisa, beren burua nagusiegizat hartzeagatik (% 9,5).
- ✓ **65 urte edo gehiago** duten pertsonak batez ere adina eta osasun-arazoak aipatu dituzte boluntario aritzeko eragozpen nagusi gisa

(pertsone horien zati handi batek adierazi du nagusiegiak direla) (% 46). Horrez gain, askok denbora falta ere aipatu dute, familiarekin lotutako erantzukizunengatik (% 15,5). Kasu horretan, senideak, bilobak edo beste zaindu behar izatea litzateke denbora falta horren arrazoia.

3.2 Partaidetza sozialerako beste modu batzuk

Esan dugun bezala, hirugarren sektoreko boluntarioak kuantifikatzeaz gain, abaguneaz baliatu gara ikertzeko zenbat pertsona aritzen diren boluntariotzarekin batera agertzen diren partaidetza sozialerako beste modu batzuetan. Ondoren, kontuan hartu ditugun partaidetza sozialerako moduetako bakoitzaren analisia jaso dugu.



A. Zenbat pertsona dira antolakunderen bateko kide? Zenbat pertsona daude antolakunderen batean bazkide-tuta edo afiliatuta?

Lan honetan bildutako datuen arabera, kontsultatutako pertsonen % 45,8 antolakunderen bateko kide dira, antolagunde hori hirugarren sektorekoa izan zein bestelakoa izan, hala nola parrokiak edo zentro erlijiosoak, sindikatuak edo lanbide-elkargoak eta alderdi politikoak (2017an, % 38,9 ziren).

Ez dirudi sexua erabakigarria denik antolakunderen bateko kide izateko, nahiz eta gizonen tasa emakumeena baino pixka bat altuagoa den (% 46,8 eta % 44,6).

Adinaren arabera, batez ere 40 urtetik gorakoek dute antolakunderen batekoak izateko tasarik altuena (% 47tik gorako tasa). Antolakunderen batekoa izateko tasa, halaber, zertxobait altuagoa da Arabako lurralde historikoan (% 49,7koa).

Era berean, nabarmendu egin behar dugu hirugarren sektoreko antolakundeetan diharduten boluntarioen artean askoz bazkide edo afiliatu gehiago daudela (% 72,9).

ANTOLAKUNDEREN BATEKO KIDE/AFILIATU DIREN PERTSONEN PROPORZIOA. EMAITZA OROKORRAK ETA SEXUAREN, ADINAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERAKOAK. 2023 eta 2017. %.

		2023	2017
Bazkideen/afiliatuen %		45,8	38,9
SEXUA	Gizonak	44,6	40,1
	Emakumea	46,8	37,7
ADINA	18-29 urte	36,7	24,7
	30-39 urte	36,6	40,4
	40-49 urte	47,2	48,2
	50-64 urte	48,3	47,4
	65 edo gehiago	50,5	29,2
LURRALDE HISTORIKOA	Araba	49,7	31,7
	Bizkaia	44,1	36,5
	Gipuzkoa	46,4	46,0
Hsko antolakundeetan boluntario		72,9	74,6

Kontuan hartutako antolakundeei erreparatuz gero, honako hauek dira kideztasaren emaitzak:

KIDE/AFILIATU DIREN PERTSONEN PROPORTZIOA. EMAITZA OROKORRAK ETA ANTOLAKUNDE MOTAREN, SEXUAREN, ADINAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERAKOAK. 2023. %.

		Hirugarren sektoreko antolakundea	Zentro erlijiosoak	Sindikatu edo lanbide-elkargoa	Alderdi politikoa
Bazkideen/afiliatuen %		29,2	7,1	21,9	4,5
SEXUA	Gizonak	27,0	5,6	23,5	5,7
	Emakumea	31,2	8,5	20,5	3,4
ADINA	18-29 urte	24,9	11,3	14,9	5,8
	30-39 urte	17,4	5,2	24,3	3,3
	40-49 urte	23,8	4,0	28,1	4,5
	50-64 urte	26,3	5,4	28,4	3,0
	65 edo gehiago	42,9	9,9	13,6	5,8
LURRALDE HISTORIKOA	Araba	33,4	8,9	23,3	5,3
	Bizkaia	26,5	5,6	24,0	4,2
	Gipuzkoa	31,5	8,7	17,9	4,5

› **Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen % 30 inguru hirugarren sektoreko antolakunderen batekoak dira.**

Hirugarren sektoreko antolakunderen batekoak diren pertsonen proportzioa 2017koaren berdin-berdina da (% 29,3). Batez ere, 64 urtetik gorakoen kideztamaila nabarmendu behar dugu. Lurraldeen arabera, Arabak dauka ehunekorik altuena (% 33,4).

68. *Euskal Soziometroak* (2018an argitaratu zuten³⁶) EAEko biztanleen kideztadatu batzuk eman zituen, zenbait talde edo antolakunderi dagokienez. Hala, azterlan horren arabera, euskaldunen % 16 kirol-talde batekoak dira, % 15 talde kultural batekoak, % 15 gizartean laguntzeko edo giza eskubideak babesteko antolakunde batekoak, % 7 auzo-elkarte batekoak, % 8 ikasleen gurasoen elkarte batekoak, % 4 gazte- edo ikasle-elkarte batekoak eta % 1 boluntarioen beste elkarte mota batekoak.

2017ko azaroko *barometroak* (CIS)³⁷ alderaketak egiteko beste datu batzuk ematen ditu; hala, azterlan horren arabera, espainiarren % 16,7 zeuden edo egon ziren azken urtean karitatezko elkarte batean edo gizarteari laguntzeko elkarteren batean, % 13,1 kirol-klub edo -elkarteren batean, % 12,2 kulturaren edo aisialdiaren inguruko talderen batean, % 2,6 elkarte ekologistaren batean, % 5,5 giza eskubideak edo bidezko merkataritza sustatzeko antolakunde bakezaleren batean, % 2,7 gazte- edo ikasle-elkarteren batean, eta % 10,6 beste elkarte mota batzuetan (gurasoen elkarteetan, auzo-elkarteetan...).

36 Op. Cit.

37 Op. Cit.

Europar, Eurostatek Europako bizi-baldintzei buruz egindako azterlanaren arabera (Living Conditions in Europe, 2018)³⁸, 16 urtetik gorako europarren % 11,9k hartu zuten parte hiritartasun aktiboko jardueretan, % 18k boluntarioria formaleko jardueretan, eta % 20,7k boluntarioria informaleko jardueretan.

› **Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen % 22 inguru daude afiliatuta sindikatu edo lanbide-elkargo batera.**

2023an sindikaturen batera afiliatutako herritarren proportzioa askoz handiagoa da, 2017an jasotakoa baino (% 13,9). Kasu honetan, afiliatutako gizonen proportzioa handiagoa da, emakumeena baino (% 23,5 eta % 20,5). Gainera, 40 eta 64 urte bitarteko pertsonak afiliazio-tasa askoz ere altuagoak dituzte. Lurraldearen arabera, Bizkaiak eta Arabak dute afiliazio sindikaleko indizearik altuena (% 24koa gutxi gorabehera).

2018ko Euskal Soziometroak datu apalagoak ematen ditu sindikatuera edo lanbide-elkargoera afiliatuta zeuden euskal biztanleei buruz, euskaldunen % 11 inguru zirela kalkulatu baitu. CISen azterlanak, bestalde, adierazten du 2017an espainiarren % 8,6 zeudela sindikaturen batean, % 4,8 lanbide-elkargoren batean eta % 1,6 enpresa-elkarteren batean.

Europar, Eurobarometroaren arabera, europarren % 16 dira sindikatu bateko kide eta % 11 lanbide-elkarte batekoak.

› **Kontsultatutako % 7 inguru dira parrokia edo zentro erlijioso batekoak.**

Parrokia edo zentro erlijioso batekoak diren pertsonen ehunekoa 2017koa baino zertxobait handiagoa da (% 3,2). Emakumeak neurri handiagoan daude antolakunde mota horietan sartuta (emakumeen % 8,5 eta gizonen % 5,6). Adinaren arabera, 64 urtetik gorakoak nabarmentzen dira batik bat (% 9,9).

Euskal Soziometroaren arabera, euskaldunen % 8 inguru daude parrokia batean edo bestelako antolakunde edo elkarte erlijioso batean sartuta.

› **Inkesta bete dutenen % 4,5 alderdi politiko bateko kideak dira.**

Alderdi politikoren batean dauden pertsonen ehunekoa pixka bat hazi da 2017tik hona (% 2,3). Talde politikoetan dabilzan gizonen tasa emakumeena baino zertxobait handiagoa da (% 5,7 eta % 3,4, hurrenez hurren).

Datu horiek nahiko hurbil daude 2018ko Euskal Barometroak³⁹ emandako datuetatik, zeinak adierazi baitzuen biztanleen % 4 alderdi politikoren batekoak zirela. CISen datuen arabera, 2017an alderdi politikoren batean zeuden edo azken urtean egon ziren espainiarren ehunekoa % 3,8koa zen⁴⁰.

38 Op. Cit

39 Op. Cit

40 Op. Cit

B. Zenbat pertsona aritzen dira boluntario hirugarren sektorekoak ez diren antolakundeetan? Zenbat pertsonak laguntzen dute zentro erlijioso, sindikatu, lanbide-elkargo edo alderdi politiko batean?

Aintzat izan dugun partaidetza sozialeko beste moduetako bat izan da **hirugarren sektorekoak ez diren antolakundeetan ordainik jaso gabe egiten den borondatezko lana**. Hain zuzen ere, parrokiez, zentro erlijiosoez, sindikatu edo lanbide-elkargoez eta alderdi politikoez ari gara. Indarreko legediak ez ditu boluntariotzat hartzen pertsona horiek, zentzu hertsian; hala ere, interesgarritzat jotzen dugu entitate mota horietan modu altruistan zenbatak laguntzen duten jakitea.

Bildutako datuen arabera, **euskaldunen** % 19 (359.429 herritar inguru) aritu dira azken urtean **borondatez** lanean hirugarren sektorekoak ez diren irabazi-asmorik gabeko **antolakunde pribatu**etan. Zehazki, biztanleen % 6,4 zentro erlijiosoren batean aritu dira (120.027 lagun), % 11,9 sindikatu edo lanbide-elkargoren batean (225.041 lagun), eta % 4,2 alderdi politikoren batean (78.969 lagun). **Biztanleen % 19k laguntzen dute borondatez bestelako antolakunde pribatu**etan, izan zentro erlijiosoetan (% 6,4), izan sindikatu edo lanbide-elkargoetan (% 11,9), izan alderdi politikoetan (% 4,2).

2023an jasotako datuak 2017koak baino askoz ere altuagoak dira, baina datu-bilketarako erabilitako metodoekin izan dezake zerikusia horrek⁴¹.

HIRUGARREN SEKTOREKOAK EZ DIREN ANTOLAKUNDEETAN BORONDATEZKO LAN ORDAINDU GABEA EGITEN DUTEN PERTSONEN PROPORZIOA. ANTOLAKUNDE MOTAREN ARABERAKO EMAITZAK. 2023. EHUNENKOA ETA ABSOLUTUEN ZENBATESPENA.

	Zentro erlijiosoak		Sindikatuak edo lanbide-elkargoak		Alderdi politikoak	
	%	Balioespina	%	Balioespina	%	Balioespina
2023	6,4	120.027	11,9	225.041	4,2	78.969
2017	2,2	40.264	3,0	50.003	1,5	25.330

Zer aldagaik eramaten gaituzte hirugarren sektoretik kanpoko antolakundeetan boluntario aritzera?

Antolakunde mota horietan laguntzeari denbora eskaintzen dioten gizonen tasa emakumeena baino altuagoa da (% 20,2 eta % 18,0, hurrenez hurren). Halaber, **gazteenen (40 urtetik beherakoen) inplikazio-tasa altuagoa da**.

Halaber, hauteman dugu **ikasleek eta landunek parte hartzen dutela gehien entitate horietan** (% 19,2 eta % 22,4, hurrenez hurren).

⁴¹ Metodologiari buruzko atalean adierazi moduan (3.3 Mugaketa metodologikoak), datuak biltzeko metodoen arteko aldeek neurri handi batean azaldu ditzakete 2017ko eta 2023ko neurketetako puntuazio batzuetan dauden desberdintasunak.

HIRUGARREN SEKTOREKOAK EZ DIREN ANTOLAKUNDEETAN BORONDATEZKO LAN ORDAINDU GABEA EGITEN DUTEN PERTSONEN PROPORZIOA. EMAITZA OROKORRAK ETA SEXUAREN, ADINAREN, JARDUERAREKIKO HARREMANAREN ETA IKASKETA-MAILAREN ARABERAKOAK. 2023 eta 2017. %

		2023	2017
Hskoak ez diren antolakundeetan borondatezko lana egiten duten pertsonen %		19,0	5,6
SEXUA	Gizonak	20,2	6,7
	Emakumea	18,0	4,5
ADINA	18-29 urte	25,7	4,5
	30-39 urte	23,4	5,8
	40-49 urte	21,8	6,4
	50-64 urte	18,9	7,1
	65 edo gehiago	12,3	3,7
JARDUERAREKIKO HARREMANA	Landuna	22,4	8,3
	Langabea	17,3	1,6
	Ikaslea	29,6	4,3
	Bestelako ez-aktiboa	11,8	3,4
IKASKETA-MAILA	Lehen mailako ikasketak edo beheragokoak	15,8	1,8
	Bigarren mailako ikasketak	23,3	6,2
	Lanbide Heziketa	17,4	5,4
	Unibertsitate-ikasketak	19,4	8,2

C. Zenbatek ematen diote laguntza ekonomikoa antolakunderen bati? Zenbateko maiztasunarekin laguntzen dute?

Antolakundeetarako dohaintza ekonomikoak partaidetza sozialerako beste modu bat dira, eta azterlan honetan kontuan hartu nahi izan ditugu. Eskuratu ditugun emaitzen arabera, **kontsultatu ditugunen erdiek baino gehixeagok (% 53,4k) azken urtean ekonomikoki lagundu dute antolakunderen batean, aldizka edo une jakinetan nahiz erregulartasunez**⁴². 2023an bildutako datuak 2017koen oso antzekoak dira; urte hartan, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen % 55,4k ziurtatu zuten denbora-tarte berean antolakunderen batean ekonomikoki lagundu zutela.

Estatuan, Espainiako Boluntarioraren Plataformak 2022an⁴³ argitaratutako azterlaneko datuek adierazten dute espainiarren % 30,7k-edo laguntzen diotela ekonomikoki GKeren bati.

42 Dohaintza ekonomikoaren barruan, elikagai-banaketa kateen salmenta-guneetan elikagaiak eta bestelako produktuak ematea ere sartzen da.

43 Op. Cit.


AZKEN URTEAN ANTOLAKUNDEREN BATI EKONOMIKOKI LAGUNDU DIOTEN PERTSONEN PROPORTZIOA. EMAITZA OROKORRAK ETA SEXUAREN, ADINAREN, LURRALDE HISTORIKOAREN ETA BORONDATEZKO LANA EGITEAREN ARABERAKOAK. 2023 eta 2017. %

		2023	2017
Laguntza ekonomikoa ematen dutenen %		53,4	55,4
SEXUA	Gizonak	50,8	54,6
	Emakumea	55,8	56,1
ADINA	18-29 urte	41,7	32,1
	30-39 urte	45,8	54,0
	40-49 urte	48,4	59,7
	50-64 urte	58,0	66,3
	65 edo gehiago	61,8	53,8
LURRALDE HISTORIKOAKO	Araba	54,5	49,2
	Bizkaia	54,9	55,5
	Gipuzkoa	50,8	58,2
Hsko antolakundeetan boluntario		74,3	75,5

Ikusi dugunez, emakume gehiagok laguntzen dute ekonomikoki antolakunderen batean proportzioan, gizonak baino (% 55,8 eta % 50,8, hurrenez hurren). Gainera, adinean gora egin ahala, pertsona gehiagok erabakitzen dute entitateen bati dohaintzen bidez laguntzea.

Halaber, nabarmendu egin behar dugu antolakunderen batekin ekonomikoki lagundu duten boluntarioen ehunekoa askoz handiagoa dela biztanleria osoarena baino (% 74,3).

ANTOLAKUNDEREN BATI EKONOMIKOKI LAGUNDU DIOTEN PERTSONEN BANAKETA, EKARPENAREN MAITZASUNAREN ARABERA. 2023. %



Dohaintzak egiten dituzten hamar lagunetik zazpik-edo erregulartasunez egiten dituzte (dohaintza erregular gehienak elkarteen edo entitateen bazkide-nahiz afiliazio-kuotak izaten dira). Ekarpeneko ekonomiko egonkorren proportzioa, guztizkoaren gainean, 2017koa baino zertxobait handiagoa da (% 63). Biztanleen % 28,3k aldizka edo une jakinetan egiten dituzte dohaintzak.

Hona hemen emaitzen laguntza ekonomikoa jasotzen duten antolakundeen araberrako emaitzak:

AZKEN URTEAN ANTOLAKUNDEREN BATI EKONOMIKOKI LAGUNDU DIOTEN PERTSONEN PROPORZIOA. EMAITZA OROKORRAK ETA LAGUNTZA JASO DUTEN ANTOLAKUNDEEN, SEXUAREN, ADINAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERAKOAK. 2023. %

		Hirugarren sektoreko antolakundea	Zentro erlijiosoak	Sindikatu edo lanbide-elkargoa	Alderdi politikoa
Laguntza ekonomikoa ematen dutenen %		41,0	11,2	18,7	3,9
SEXUA	Gizonak	36,4	10,6	21,0	5,4
	Emakumea	45,2	11,9	16,6	2,5
ADINA	W18-29 urte	30,2	17,1	15,3	7,5
	30-39 urte	29,9	7,1	21,3	4,5
	40-49 urte	36,4	8,5	22,1	3,3
	50-64 urte	40,4	7,0	27,0	2,9
	65 edo gehiago	54,8	16,3	8,8	3,4
LURRALDE HISTORIKOA	Araba	42,7	12,0	19,1	3,7
	Bizkaia	41,0	10,2	20,9	3,7
	Gipuzkoa	40,4	12,6	14,9	4,4

› **Biztanleen % 41ek ekonomikoki lagundu diote hirugarren sektorerako atxikitako antolakunderen bati, aldira nahiz ekarpen erregular baten bidez.**

Hirugarren sektoreko antolakunderen bati ekonomikoki laguntzen dioten pertsonen ehunekoa 2017koa baino pixka bat txikiagoa da (% 47,5). Hirugarren sektoreko antolakunderen bati ekonomikoki laguntzen dioten emakumeen proportzioa askoz handiagoa da gizonena baino (% 45,2 eta % 36,2). Adinaren arabera, 64 urtetik gorakoak nabarmentzen dira batik bat (% 54,8). Adinean gora egin ahala, ekonomikoki lagundu duten pertsonen ehunekoa handiagoa da.

› **Kontsultatutako pertsonen % 11,2k ekonomikoki laguntzen diote parroki edo zentro erlijioso bati.**

2023an parroki edo zentro erlijioso bati ekonomikoki lagundu dioten pertsonen ehunekoa 2017koaren oso antzekoa da (% 12,3). Antolakunde horiei ekonomikoki laguntzen dietenen artean, batez ere 30 urtetik beherakoak eta 64 urtetik gorakoak nabarmendu behar ditugu (% 17,1 eta % 16,3, hurrenez hurren), baita Bizkaiko lurralde historikoan bizi direnak ere (% 14,8).

› **Kontsultatutako pertsonen % 18,7k ekonomikoki laguntzen diote sindikatu edo lanbide-elkargo bati.**

2023an sindikatu edo lanbide-elkargo bati ekonomikoki lagundu dioten pertsonen ehunekoa 2017an erregistratutakoa baino handiagoa da (% 10,2). Sindikatuekin edo lanbide-elkargoekin laguntzen duten gizonen proportzioa handiagoa da emakumeena baino (% 21 eta % 16,6). Halaber, entitate horiei dohaintza ekonomikoa ematen dioten 30 eta 64 urte bitartekoen proportzioa handiagoa da.

› **Kontsultatutako biztanleen % 4k ia laguntza ekonomikoa ematen diote alderdi politiko bati.**

Antolakunde politikoekin laguntzen duten pertsonen ehunekoa 2017an jasotakoaren antzekoa da, nahiz eta pixka bat handiagoa izan (% 2,1). Gizonen ekarpen ekonomikoa (% 5,4) emakumeena baino askoz handiagoa da (% 2,5) antolakunde mota horietan.

D. Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleek zer-nolako partaidetza daukate bestelako jarduera sozial edo politikoetan?

Azterlan honek kontuan hartu duen partaidetza sozialerako beste modu bat jarduera politiko edo sozialetan parte hartzea izan da. Zehazki, zortzi jarduera aztertu ditugu:

- a. Produktu edo zerbitzu jakinak erostea edo erosteari uztea, arrazoi etikoak, politikoak, ingurumenekoak eta abar direla eta
- b. Kanpainaren bat babesteko sinboloak jantzita eramatea edo ikusteko moduko leku batean jartzea
- c. Manifestazioetan edo elkarretaratzeetan parte hartzea
- d. Grebetan parte hartzea
- e. Odola ematea edo osasunaren arloko bestelako laguntzak ematea, ordainik jaso gabe
- f. Arropa, mantak edo bestelako gauzak ematea⁴⁴
- g. Etxean pertsonak hartzea
- h. Hedabideren batean iritzi politikoak edo eduki sozialekoak adieraztea
- i. Administrazio publikoari edo enpresei arrazoi politiko, etiko edo ingurumenekoak tarteko egiten zaizkien eskaerak sinatu edo babestea

⁴⁴ Item hau 2023ko kontsultari dagokio; beraz, 2017koan ez zen aintzat hartu.

JARDUERA SOZIAL EDO POLITIKOETAN PARTE-HARTU DUTEN PERTSONEN PROPORZIOA. EMAITZA OROKORRAK ETA SEXUAREN, ADINAREN, LURRALDE HISTORIKOAREN ETA BOLUNTARIOTZAN ARITZEAREN ARABERAKOAK. %

		2023	2017
Jarduera sozial edo politikoetan parte hartzen dutenen %		88,2	69,9
SEXUA	Gizonak	84,3	70,8
	Emakumea	91,7	69,2
ADINA	18-29 urte	93,0	85,1
	30-39 urte	87,2	82,6
	40-49 urte	88,8	83,5
	50-64 urte	89,5	70,2
	65 edo gehiago	84,9	43,1
LURRAL-DE HISTORIKOA	Araba	89,2	65,2
	Bizkaia	86,7	70,2
	Gipuzkoa	90,1	71,7
Hsko antolakundeetan boluntario		94,3	89,5


Oharra: kontuan hartu behar dugu parte hartzeko modu edo adierazpen berriak txertatu ditugula 2023an, 2017an aintzat hartu gabeak, eta horrek eragina dauka ekimen hauen guztizko partaidetzaren ehunekoan.

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen % 88,2k jarduera horietako gutxienez batean hartu dute parte azken urtean; beraz, biztanleen % 11,8k ez dute batean ere parte hartu. Halaber, adierazi beharra dugu biztanleen % 50,3k gutxienez bi jardueratan hartu dutela parte eta % 12,4k bost jardueratan baino gehiagotan.

Jarduera sozial edo politikoetan izandako parte-hartzearen ehunekoa handiagoa da emakumeetan, gizonetan baino (% 91,7 eta % 84,3, hurrenez hurren). Adinari erreparaturaz, batez ere 30 urtetik beherakoek hartzen dute parte jarduera mota horietan. Alabaina, parte-hartzea altua da adin-tarte guztietan. Gainera, boluntariotzan aritzeak, ematen duenez, horrelako ekimenetan gehiago parte hartzera bultzatzen du (boluntarioen % 94,3k ziurtatu dute jarduera horietakoren batean parte hartu dutela).

Hona hemen kontuan hartutako jardueretako bakoitzean izandako inplikazioaren araberrako emaitzak:

POPULAZIOAREN BANAKETA, JARDUERA SOZIAL EDO POLITIKOETAN DUEN PARTAIDETZAREN ARABERA. EMAITZA OROKORRAK. 2023. %



› **Arropa, mantak edo bestelako gauzak ematea da ekimenik ohikoena;** euskaldunen % 85,4k baieztatzen dute azken urtean hori egin izana.

Batez ere emakumeek baieztatu dute ekimen mota hauetan parte hartzen dutela (emakumeen % 87,9k eta gizonen % 82,5ek). Oro har, ez dugu erlazio argirik atzeman adinaren eta jarduera mota hauetan parte hartzearen artean. Ezta lurralde historikoaren edo boluntario izan edo ez izatearen arabera ere.

› **Administrazio publikoari edo enpresei arrazoi politiko, etiko edo ingurumenekoak tarteko egiten zaizkien eskaerak sinatu edo babestea da** bigarren ekimenik ohikoena, **Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen % 46,7k baieztatzen baitute azken urtean hori egin izana** (2017an, % 35,4). Kasuen % 56tan, Internet bidez egin zen sinadura-bilketa.

30 urtetik gorakoek gehiago hartzen dute parte egitasmo mota hauetan; gutxi gorabehera, bitik batek. Hirugarren sektoreko antolakundeetan diharduten boluntarioen tasa, era berean, batezbestekoaren gainetik dago (% 56,1).

Datu horiek 2018ko Euskal Soziometroak argitaratutakoen antzekoak dira, baina pixka bat gorago daude; soziometro horren arabera, biztanleen % 35ek sinatu zuten eskaera aldarrikatzaileraren bat. CISen 2017ko barometroaren datuek esaten dute espainiarren % 31,1ek sinatu zutela eskaeraren bat edo sinadurak bildu zituztela.

Halaber, demokrazia parte-hartzaileari buruzko Eurobarometroaren arabera (2013⁴⁵), europarren % 34k sinatu zuten eskaeraren bat, paperean nahiz Internet bidez.

45 Op. Cit.

- › **Arrazoi etikoak, politikoak, ingurumenekoak edo bestelakoak direla-eta produktu edo zerbitzu jakinak erostea edo erosteari uztea** da hirugarren ekintza ohikoena, % 44,3 batekin (2017an, % 35,9).

Emakumeak eta 30 urtetik gorakoak dira ekimen mota hau gehien babesten dutenak. Gainera, jarduera mota hauetan, boluntarioen inplikazioa askoz ere handiagoa da, biztanleen batezbestekoa baino (% 52,5).

Aipatutako soziometroaren arabera, 2018an Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen % 18k ez zituzten produktu jakin batzuk erosi edo boikot egin zieten produktu jakin batzuei, arrazoi etikoak, politikoak edo ingurumenekoak tarteko. Bestalde, CISen 2018ko apirileko barometroaren arabera⁴⁶, inkesta egin aurreko azken urtean espainiarren % 26,3k produktu jakin batzuk erosi zituzten arrazoi politiko edo etikoengatik edo ingurumenari mesede egiteagatik, eta % 23,2k produkturen bat erosteari utzi zioten arrazoi berberengatik.

- › **Kontsultatu ditugun pertsonen % 42,8k baieztatzen dute azken urtean manifestazio edo elkarretaratze batera joan direla** (2017an, % 27,2k).

40 urte baino gutxiago dituztenek, batezbestekoarekin alderatuta, partaidetza-indize altuagoak dauzkate. Hala, indize altuagoak dauzkate, baita ere, boluntario aritzen direnek (% 52,5).

2018ko Euskal Soziometroan jasotzen diren datuek ildo berean adierazten dute euskaldunen % 40k-edo parte hartu zutela baimendutako manifestazio batean inkesta egin aurreko urtean. Estatuan, CISen kalkuluen arabera, 2018an espainiarren % 22,4 izan ziren manifestazio batean.

- › **Kanpainaren bat babesteko sinboloak jantzita eramatea edo ikusteko moduko leku batean jartzea da bigarren egitasmo ohikoena (banderak balkoietan, profil-irudia sare sozialetan, eta abar), euskaldunen % 32,5ek baieztatzen baitute azken urtean hori egin izana** (2017an, % 43,2k).

30 urtetik gorakoek gehiago hartzen dute parte egitasmo mota hauetan; gutxi gorabehera, bitik batek. Hirugarren sektoreko antolakundeetan diharduten boluntarioen tasa, era berean, batezbestekoaren gainetik dago (% 56,1).

Neurri batean, Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2018ko Euskal Soziometroan⁴⁷ argitaratutako datuekin alderatu daitezke datuok, soziometro horren arabera Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen % 20k erabili zuelako inkesta egin aurreko urtean iritzi sozial edo politikoa adierazteko irudiren bat (pegatina, profileko argazkia...).

46 Op. Cit.

47 Op. Cit.

- › **Inkestari erantzun diotenen % 23,4k odola eman dute, edo bestelako dohaintzaren bat egin dute osasunaren arloan, azken urtean** (2017an, % 12,3k).

Gazteenak (40 urtetik beherakoak) dira dohaintza mota horiek gehien egiten dituztenak. Adinak gora egin ahala, tasa pixkanaka jaisten doa, eta jaitsiera handia ikusi dugu 65 urtetik gorakoan artean (% 8,5).

CISek 2017ko azaroko barometroan⁴⁸ argitaratutako datuen arabera, espainiarren % 9,2k ziurtatu zuten inkesta egin aurreko urtean odola eman zutela.

- › **Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen % 23,1ek iritzi politikoak edo eduki sozialekoak adierazi ditu hedabideren batean;** alegia, informazio politikoa eta soziala eman dute sare sozialetan, blog pertsonaletan, zuzendariei zuzendutako gutunetan eta abarretan (2017an, % 12,1ek). Gehienek (% 73,4k) Interneten adierazten dituzte iritziok.

Gai honetan, gizonak askoz ere partaidetza-tasa altuagoa dute, emakumeek baino (% 28,4 eta % 18,6). Adinaren arabera, ikusi dugu 40 urtetik beherakoek gehiago hartzen dutela parte ekimen mota hauetan. Indize altuagoak dauzkate boluntario aritzen direnek ere (% 31,6).

2018ko Euskal Soziometroko datuak (% 8) nahiz CISek 2018an argitaratutakoak (% 5,5) baxuagoak dira inkesta honetan jasotakoak baino; halere, kontuan hartu behar dugu Interneteko foroetan, blogetan edo eztabaida politiko nahiz sozialeko taldeetan izandako parte-hartzeaz bakarrik galdetu zitzaiela bi kasuetan.

Europar, 2015eko Eurobarometroaren arabera, europarren % 28k gai publikoren bati buruzko iritzia adierazi zuten Interneten edo komunikabideren batean eta % 24k tokiko edo eskualdeko hautetsi bati.

- › **Kontsultatutako hamar lagunetik bik gutxi gorabehera (% 21,2) parte hartu dute grebaren batean azken urtean** (2017an, % 10,3k).

Egitasmo hauetako parte-hartzea zertxobait handiagoa da 40 urtetik beherakoan artean eta antolakunderen batean laguntzen dutenen artean (% 26,7). Euskal Soziometroak 2018an argitaratutako datua (% 25) oso antzekoa da.

- › **Biztanleen % 4,2k gutxi gorabehera pertsonaren bat hartu dute etxean azken urtean (adibidez, Ukrainako haurrak, errefuxiatuak...)** (2017an, % 2,2k).

Adinari erreparatuta, gazteenek parte hartzen dute gehien (40 urte artekoek) ekimen hauetan. Halaber, borondatezko denborarekin laguntzeak ekimenotan parte hartzera bultzatzen duela ematen du (% 10,2).

⁴⁸ Op. Cit.

PERTSONEN PROPORZIOA, JARDUERA SOZIAL EDO POLITIKOETAN DUTEN PARTE-HARTZEAREN ARABERA. EMAITZA OROKORRAK ETA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERAKOAK. 2023. %

	Total	Sexua		Adina				
		Gizonak	Emakumea	18-29 urte	30-39 urte	40-49 urte	50-64 urte	65 o urte
Arropa, mantak edo bestelako gauzak ematea	85,4	82,5	87,9	80,5	89,9	81,1	86,0	88,5
Arrazoi politiko, etiko edo ingurumeneko onorioz eskaerak sinatu edo babestea	46,7	47,1	46,4	39,5	50,5	47,8	48,4	46,4
Produktu edo zerbitzu jakin batzuk erostea edo erosteari uztea	44,3	41,3	46,9	60,9	45,5	45,7	45,9	33,5
Manifestazioetan edo elkarretaratzeetan parte hartzea	42,8	42,5	43,0	48,3	49,5	45,1	41,3	36,5
Kanpainaren bat babesteko sinboloak jantzita eramatea edo ikusteko moduko leku batean jartzea	32,5	33,4	31,6	29,8	36,1	34,8	30,5	32,1
Odola ematea edo osasunaren arloko bestelako laguntzak ematea	23,4	25,6	21,6	30,2	36,1	28,3	25,4	8,5
Bitartekoren batean iritzi politikoak edo eduki sozialekoak adieraztea	23,1	28,4	18,6	33,1	29,2	22,9	17,9	21,0
Grebetan parte hartzea	21,2	22,6	19,9	36,4	29,3	23,4	20,7	9,2
Etxean pertsonak hartzea	4,2	4,6	3,8	7,7	7,5	3,8	2,4	2,9

PERTSONEN PROPORZIOA, JARDUERA SOZIAL EDO POLITIKOETAN DUTEN PARTE-HARTZEAREN ARABERA. EMAITZA OROKORRAK ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ETA BORONDATEZKO LANA EGITEAREN ARABERAKOAK. 2023. %

	Partaidetza-ren %	Lurralde historikoa			Gaur egun dauden boluntarioak
		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
Arropa, mantak edo bestelako gauzak ematea	85,4	86,7	85,8	84,5	86,7
Arrazoi politiko, etiko edo ingurumeneko onorioz eskaerak sinatu edo babestea	46,7	45,6	49,8	42,7	56,1
Produktu edo zerbitzu jakin batzuk erostea edo erosteari uztea	44,3	47,2	44,3	43,3	52,5
Manifestazioetan edo elkarretaratzeetan parte hartzea	42,8	44,9	41,5	43,6	54,2
Kanpainaren bat babesteko sinboloak jantzita eramatea edo ikusteko moduko leku batean jartzea	32,5	30,3	33,2	32,1	44,7
Odola ematea edo osasunaren arloko bestelako laguntzak ematea	23,4	30,6	21,4	23,3	39,4
Bitartekoren batean iritzi politikoak edo eduki sozialekoak adieraztea	23,1	20,9	25,4	20,8	31,6
Grebetan parte hartzea	21,2	23,7	24,0	15,9	26,7
Etxean pertsonak hartzea	4,2	3,4	4,5	4,0	10,2

E. Zenbatek parte hartu dute auzoan/herrian/udalerrian jarduerak ludikoak, kirolekoak, kulturalak edo zibikoak antolatzen?

Azterlanean, biztanleek komunitateko jarduerak antolatzean izandako parte-hartzeari buruzko zenbait item jaso ditugu. Zehazki, honako item hauek aztertu ditugu:

- Auzoan/herrian/udalerrian jarduerak ludikoak, kirolekoak edo kulturalak antolatzen parte hartzea
- Auzoan/herrian/udalerrian jarduerak zibikoak antolatzen parte hartzea

Emitza orokorren analititik, honako hau ondorioztatu dugu:

- › **Kontsultatu ditugun lau lagunetik ia batek (% 23,9k) jarduerak ludiko, kultural edo kiroleko batean hartu du parte bere herri, auzo edo udalerrian;** adibidez, futbol-talde bat entrenatzea, bestelako kirol-jarduerak antolatzen laguntzea, egun seinalatuetan

laguntzea (hala nola auzoko jaietan, Olentzeroren egunean, San Joan jaietan...) eta jarduera antolatu batean begirale aritzea. 2017an, biztanleen % 22,5ek hartu zuten parte ekimen mota horietan.

- » **Gainera, % 10,2k jarduera zibikoetan** parte hartu dute; esaterako, auzolanetan, Administrazioak sustatutako partaidetza-prozesuetan (barruti-kontseiluetan, kasu), larrialdietan, babes zibilean eta ekitaldi handietan. 2017an, ehuneko hori % 7,2koa zen.

Bi kasuetan, gizonek emakumeek baino partaidetza-tasa altuagoak dituzte. Adinaren arabera, jarduera ludikoetan, kulturaletan edo kirolekoetan aritzen direnek profil gazteagoa dute, 30 urte baino gutxiago dutenek % 43,4ko tasa dute eta. Jarduera zibikoetan, gazteenek dauzkate (18 eta 29 urte artekoek), berriro ere, partaidetza-indize altuenak (% 19,3), eta, 64 urtetik gorakoen artean, nabarmen murrizten da indize hori (% 5,7).

Bestalde, antzeman dugu boluntarioek jarduera mota hauetan parte hartzeko joera handiagoa dutela; izan ere, partaidetza-tasa nabarmen altuagoak dituzte bi jarduera motetan. Biztanleria osoarekin alderatuta dauden aldeak biziki deigarriak dira jarduera ludiko, kultural edo kirolekoen ari garenean (% 46,4).

JARDUERA LUDIKOETAN, KULTURALETAN, KIROLETAKOETAN EDO ZIBIKOETAN PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONEN PROPORTZIOA. EMAITZA OROKORRAK ETA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERAKOAK. 2023. %

	Guzti- ra	Sexua		Adina				
		Gizonak	Emaku- mea	18-29 urte	30-39 urte	40-49 urte	50-64 urte	65 edo gehia- go
Jarduera ludiko, kul- tural edo kirolekoak	23,9	27,7	20,5	43,4	27,2	28,7	18,9	15,0
Jarduera zibikoak	10,2	12,0	8,5	19,3	15,1	9,6	8,6	5,7

JARDUERA LUDIKOETAN, KULTURALETAN, KIROLETAKOETAN EDO ZIBIKOETAN PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONEN PROPORTZIOA. EMAITZA OROKORRAK ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ETA BORONDATEZKO LANA EGITEAREN ARABERAKOAK. 2023. %

	Parte-hart- zea (%)	Lurralde historikoa			Gaur egun dau- den boluntarioak
		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
Jarduera ludiko, kul- tural edo kirolekoak	23,9	25,4	23,5	23,9	46,4
Jarduera zibikoak	10,2	14,4	8,7	10,6	31,4

**F. Nolakoa da beste familia batzuei ematen zaien laguntza?
Zenbatek ematen dute laguntza mota hori?**

Orain, beste familia batzuei ematen zaien laguntzari buruzko datuen analisiaren emaitzak aurkeztuko ditugu; hau da, etxetik kanpo eta antolakundearen eremutik at beste pertsonen alde emandako denborari dagozkionak. Argitu behar dugu partaidetza mota hau dela (nolabait) kolektiboa eta antolatua ez den bakarra.

Dena dela, interesgarria iruditu zaigu laguntza mota hau ematen duten pertsonen kopuruari buruzko datuak biltzea. Zehazki, adierazle hauek aztertu ditugu atal honetan:

- *Etxea kudeatzeari buruzko aholkularitza edo aholku profesionala ematea*
- *Bidelagun aritzea eta bisitak egitea*
- *Hirugarren pertsonak zaintzen laguntzea*
- *Laguntza ekonomikoa ematea pertsona partikularrei*
- *Etxea konpontzeko laguntza ematea*
- *Etxeko lanekin lotutako laguntza ematea*

Kontsultatuen % 44,2k, azken urtean, aztertutako laguntzaren bat eman diote familia-eremutik kanpoko norbaiti. Halere, bostetik batek egiten ditu zeregin hauek ohikotasunez, premia edo egoera zehatz bati erantzun gabe.

BESTE FAMILIA BATZUEI LAGUNTZAREN BAT EMATEN DIETEN PERTSONEN PROPORTZIOA. EMAITZA OROKORRAK ETA MAIZTASUNAREN ARABERAKOAK (OHIKOA EDO ALDIZKAKOA), SEXUARI, ADINARI, LURRALDE HISTORIKOARI ETA BORONDATEZKO LANA EGITEARI ERREPARATUTA. 2023. %

		2023	2017
Noizbait laguntzaren bat eman dutenen %		44,2	55,6
Laguntzaren bat eman ohi dutenen %		20,0	13,4
SE- XUA	Gizonak	15,8	13,4
	Emakumea	24,8	11,3
ADINA	18-29 urte	26,3	15,6
	30-39 urte	18,6	10,1
	40-49 urte	16,1	14,9
	50-64 urte	19,0	14,9
	65 edo gehiago	20,4	12,1
LURRALDE HISTORIKOA	Araba	27,4	14,5
	Bizkaia	17,3	8,9
	Gipuzkoa	20,5	13,7
Hsko antolakundeetan boluntario		30,3	14,8

Sexuaren arabera, laguntza mota hauek ohikotasunez ematen dituzten emakumeen proportzioa handiagoa da gizonena baino (% 24,8 eta % 15,8), baita 18 eta 29 urte artekoena ere (% 26,3).

Era berean, nabarmendu egin behar dugu boluntarioen proportzioa handiagoa dela biztanleena oro har baino (% 30,3); beraz, ematen duenez, boluntarioen kolektiboak prestasun handiagoa du besteei eta elkarri laguntzeko.

Laguntza hauek ohikotasunez ematen dituzten pertsonen erdiek (% 47,7k) 1 eta 5 ordu artean eskaintzen dituzte lanok egiteko, eta % 27,4k ordubete baino gutxiago.

- › **Kontsultatuen % 17,8 bidelagun aritu dira edo bisitaren bat egin dute azken urtean** (bankuan, Administrazioan edo bestetan erosketak edo izapidereen bat egiten laguntzea, medikuarenera laguntzea, pertsonak norabait eramatea, eta abar)

Laguntza mota hauek ematen dituzten gizonen pisua (% 19,1) eta 18 eta 39 urte artekoa (bostetik bat inguru) handiagoa da batezbestekoa baino. Era berean, boluntario aritzen direnek ere tasa handiagoa dute (% 31,7).

- › **Kontsultatuen % 15,4k familiakoak ez diren pertsonak zaintzen lagundu dute** (adibidez, adinekoak zaintzen, edo haurrak zaintzen, gaixorik egonik gurasoek lanera joan behar dutenean).

Emakumeek zeregin hauetan pixka bat gehiago parte hartu ohi dute gizonen baino (% 15,8). Adinaren arabera, 40 urtetik beherakoak nabarmentzen dira batik bat. Zaintza hauetan inplikaturik dauden boluntarioen tasa altuagoa da, biztanleriarena baino (% 32).

- › **Kontsultatutakoen % 15ek laguntza ekonomikoa eman die familiakoak ez diren partikularrei.**

18 eta 29 urte artekoek (% 18,1) eta 50 eta 64 urte artekoek (% 16,8) biztanleriak batez beste baino gehiago laguntzen dute ekonomikoki.

- › **Biztanleen % 14,3k, azken urtean, noizbait, etxea kudeatzeari buruzko aholkularitza edo aholku profesionala eman dute** (adibidez, aholkularitza juridiko edo ekonomikoa, fakturak kudeatzeko laguntza, eta abar).

Oraingo honetan ikusi dugunez, gizon gehiagok ematen dute aholkularitza edo aholku profesionala (gizonen % 17,4k eta emakumeen % 11,5ek). Halaber, ematen duenez, 50 urtetik gorakoek lotura handiagoa dute aholkularitzarekin edo aholku profesionalarekin, batezbestekotik gora baitaude. Boluntariotzan aritzen direnek ere laguntza mota hauek emateko prestasun handiagoa dute (% 23,4).

- › **Pertsonen % 13,8k baieztatzen dute azken urtean etxeko lanen inguruko kontuetan lagundu dietela beste batzuei.**

Adinaren arabera, laguntza hori eman ohi dutenen artean, 40 urtetik beherakoak nabarmentzen dira. Halaber, boluntario aritzen direnek batezbestekotik gorako tasak dauzkate (% 19,5).

› **Biztanleen % 12,9k etxean konponketaren bat egiten lagundu diete beste batzuei** (adibidez, iturri bat konpontzen edo zarata ateratzen duen ate bat konpontzen).

Gizonak (% 20,9) eta 18 eta 39 urte artekoak dira laguntza mota hau gehien ematen dutenak. Kasu honetan, ez du ematen boluntarioak inplikatuago daudenik, biztanleak batez beste baino.

BESTE FAMILIA BATZUEI LAGUNTZA EMATEN DIETEN PERTSONEN PROPORZIOA. EMAITZA OROKORRAK ETA MAIZTASUNAREN ARABERAKOAK (OHIKOA EDO ALDIZKAKOA), SEXUA ETA ADINA AINTZAT HARTUTA. 2023. %


		Sexua		Adina				
		Gizonak	Emakumea	18-29 urte	30-39 urte	40-49 urte	50-64 urte	65 o urte
Bidelagun aritzea eta bisitak egitea	17,8	19,1	16,6	21,8	20,0	13,6	16,5	19,6
Hirugarren pertsonak zaintzen laguntzea	15,4	14,8	15,8	22,7	21,0	13,3	15,6	10,7
Laguntza ekonomikoa ematea pertsona partikularrei	15,0	15,4	14,6	18,1	14,9	11,0	16,8	15,1
Etxea kudeatzeari buruzko aholkularitza edo aholku profesionala ematea	14,3	17,4	11,5	9,8	13,4	10,9	16,8	17,2
Etxeko lanekin lotutako laguntza ematea	13,8	15,6	12,1	19,2	20,4	13,4	10,9	11,3
Etxea konpontzeko laguntza ematea	12,9	20,9	5,5	14,8	15,5	10,7	13,3	12,0

BESTE FAMILIA BATZUEI LAGUNTZA EMATEN DIETEN PERTSONEN PROPORZIOA. EMAITZA OROKORRAK ETA MAIZTASUNAREN ARABERAKOAK (OHIKOA EDO ALDIZKAKOA), LURRALDE HISTORIKOARI ETA BORONDATEZKO LANA EGITEARI ERREPARATUTA. 2023. %

	Parte-hartzea (%)	Lurralde historikoa			Gaur egun dauden boluntarioak
		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
Bidelagun aritzea eta bisitak egitea	17,8	15,4	18,3	18,5	31,7
Hirugarren pertsonak zaintzen laguntzea	15,4	17,1	16,4	12,9	32,0
Laguntza ekonomikoa ematea pertsona partikularrei	15,0	16,4	15,1	14,4	19,2
Etxea kudeatzeari buruzko aholkularitza edo aholku profesionala ematea	14,3	17,6	14,4	12,9	23,4
Etxeko lanekin lotutako laguntza ematea	13,8	13,8	14,0	13,4	19,5
Etxea konpontzeko laguntza ematea	12,9	13,1	12,2	13,9	14,5

4. EMAITZA NAGUSIEN LABURPENA

4.1 Hirugarren sektoreko antolakundeetako boluntariotzari buruzko emaitza nagusiak



Boluntariotza-tasak

- **La tasa de voluntariado es de 17%** Boluntariotza-tasa % 17koa da, 2017an erregistratutakoa baino dezente handiagoa (% 13,4), eta joera gorakorra da 2012tik (% 8,6).
- Batez ere, noizean behingo boluntariotzaren pisua areagotu da, boluntariotzaren guztizkoaren % 7,6 baita gaur egun; ohiko boluntariotza % 9,4koa da.
- 2017ko datuekin bat, gizonen eta emakumeen boluntariotza-tasa orekatuta dago.
- Adinaren arabera, gazteenen boluntariotza-tasa nabarmentzen da (18-29 urtekoena); 50 eta 64 urte artekoena, berriz, txikiena da.
- 2012an eta 2017an bezalaxe, ikasleen boluntariotza-tasak beste guztiak gainditzen ditu.
- Goragoko ikasketak dituztenek boluntariotza-tasa handiagoa dute. Denboran, joera horri eutsi zaio.

Boluntarioen profila

- **Oreka gizonen eta emakumeen artean** (% 48,5 eta % 51,5, hurrenez hurren).
- Lau boluntariorik batek (% 24,1) **65 urte** dauzka, eta % **21,3k 18 eta 29 urte artean** dauzka.
- Biztanleek lurralde historikoaren arabera duten banaketarekin bat etorritik, boluntarioen **erdiak Bizkaian bizi dira**; herenak Gipuzkoan, eta ia % 15 Araban.
- Batez ere, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru **hiriburuetan** (% 44) edo **udalerritartean** (% 40) biltzen dira.
- Batik bat, **landunak** (% 63,4) edo ez-aktiboak (% 22,1) dira, ikasleak kenduta.
- **Prestakuntza handia** dute (% 39k graduko unibertsitate-ikasketak dauzkate).

Borondatezko ekintzaren ezaugarriak

- Boluntarioen **erdiak ia** (% 46,6k) **antolakunde batean baino gehiagotan laguntzen** dute.
- Eremu zibikoak, gizarte-ekintzaren eremuak eta kirol-eremuak biltzen dute jende gehien. Sexuaren arabera aldeak ikusi ditugu: emakumeek eremu zibikoan eta garapenerako lankidetzan hartzen dute parte gehienbat, eta gizonak, aldiz, kirolean eta enpleguan.
- Gutxi gorabehera hamar **lagunetik lauk aldizka** laguntzen du. Gazteenak (18 eta 29 urte bitartekoak) dira aldizka gehien laguntzen dutenak.
- **Hamar lagunetik zazpik aurrez aurre** laguntzen dute, eta ia % **30ek online egiten du boluntariora-lanaren gutxienez zati bat**. Gazteenek (30 urtetik beherakoek) erabiltzen dute gehien online modalitatea.
- **Hamarretik seik gutxi gorabehera 1 eta 5 ordu bitartean** ematen dituzte astean.
- **Hamar lagunetik lauk-edo zuzenean esku hartzen dute** kolektiboekin.
- Egiten duten borondatezko lanarekin **oso gustura** daude; batez ere, 65 urte edo gehiago dauzkatenak. .

- Bestalde, lautik hiruk baieztatzen dute etorkizun hurbilean antolakundeetan laguntzen jarraituko dutela, eta % 8,3k uste dute etorkizun hurbilean utziko dutela.

4.2 Partaidetza sozialerako beste modu batzuei buruzko emaitza nagusiak



A. Antolakundeetako kide izatea:

- Kontsultatutakoen % **45,8 antolakunderen batekoak** dira (2017an, % 38,9). Pertsona horien artean, gehienak (% 29,2) hirugarren sektoreko antolakunderen batean dabilta; % 21,9 sindikatu edo lanbide-elkargo batean, % 7,1 zentro erlijioso batean, eta % 4,5 alderdi politiko batean.
- **40 eta 64 urte artekoen** kidetza-maila handiagoa da.
- Antzeman dugu boluntarioen artean antolakundeetako kide izateko joera handiagoa dagoela.

B. Beste antolakunde batzuetan boluntario aritzen diren pertsonen profila

- **Boluntariotzan parte hartzeko tasan, oreka dago gizonen eta emakumeen artean.**
- Gehienek **18 eta 39 urte artean** dituzte.
- Gehienak Bizkaian bizi dira.
- Batez ere, **udalerrri ertainetan** eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiru **hiriburu**etako batean biltzen dira.
- Batez ere, **landunak** dira, eta unibertsitate-ikasketak dauzkate.

C. Dohaintza ekonomikoak:

- **Kontsultatu ditugunen erdiek baino gehixeagok (% 53,4k) azken urtean ekonomikoki lagundu dute antolakunderen batean, aldizka edo une jakinetan nahiz erregulartasunez (2017an, % 55,4k).**
- **50 urte baino gehiagokoek** egiten dituzte dohaintza horiek gehienbat.
- **Boluntarioen ekarpen ekonomikoa askoz handiagoa** da, biztanleriaren batezbestekoa baino (% 74,5).

D. Jarduera sozial edo politikoetan parte hartzea:

- **Biztanleen % 88,2k aintzat hartutako bederatzi jarduera politiko edo sozialetako gutxienez batean hartu dute parte azken urtean;** beraz, biztanleen % 11,8k ez dute batean ere parte hartu. Biztanleen % 50,3k gutxienez bi jardueratan hartu dute parte, eta % 12,4k bost jardueratan baino gehiagotan.
- Jarduera nabarmenen artean, hauek daude: pertsonen % 85,4k **arropa, mantak edo bestelako gauzak eman** dituzte, ordainik jaso gabe; % 46,7k administrazio publikoari edo enpresei arrazoi politiko, etiko edo ingurumenekoak tarteko egiten zaizkien **eskaerak sinatu edo babestu** dituzte; % 44,3k arrazoi etikoak, politikoak, ingurumenekoak edo bestelakoak direla-eta **produktu edo zerbitzu jakin batzuk erosi ditu, edo erosteari utzi**; % 42,8k manifestazioetan edo elkarretaratzeetan parte hartu dute.
- Emakumeek, gazteenek eta antolakunderen batean **boluntario aritzen direnek prestasun handiagoa dute ekimen mota horietan parte hartzeko.**

E. Komunitatean jarduera ludikoak, kirolak, kulturalak edo zibikoak antolatzen parte hartzea:

- **Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen % 34,1ek jarduera ludiko, kultural, edo zibiko batean edo kirol-jarduera batean parte hartu** dute beren herri, auzo edo udalerrian. Gehienek (% 23,9k) jarduera ludiko, kultural edo kirolekoetan parte hartu dute. Gainera, % 10,2k jarduera zibikoetan parte hartu dute.
- **Gizonek** gehiago hartzen dute parte jarduera horietan, emakumeek baino. Adinaren arabera, jarduera ludikoetan, kulturaletan edo kirolakoenetan aritzen direnek profil **gazteagoa** dute; bereziki, 18 eta 29 urte bitartekoa.
- Bi jarduera motetan, partaidetza-tasa **askoz ere altuagoa dute boluntario aritzen direnek.**

F. Beste familia batzuei laguntzea

- Biztanleen % 20k **eskuarki laguntzaren bat ematen diote** familiakoa ez den norbaiti.
- Laguntzarik ohikoenak, familiakoak ez direnei eskaintzen zaizkienak, hauek dira: **bidelagun** aritu eta **bisitak** egitea, beste batzuk zaintzen laguntzea eta pertsona partikularrei **laguntza ekonomikoa** ematea.
- **Emakumeek** gehiago laguntzen diote familiakoa ez den norbaiti eskuarki, gizonek baino (emakumeen % 24,8k eta gizonen % 15,8k).
- **Boluntario** aritzen direnek eta gazteek **laguntza mota horiek emateko joera handiagoa** dute.

5. BIBLIOGRAFIA

- CIS (IKERKETA SOZIOLOGIKOEN ZENTROA). 3195. zenbakidun azterlana. 2017KO AZAROKO BAROMETROA. Hemen eskuragarri: http://www.cis.es/cis/export/sites/default/-Archivos/Marginales/3180_3199/3195/es3195mar.pdf
- CIS (IKERKETA SOZIOLOGIKOEN ZENTROA). 3210. zenbakidun azterlana. 2018KO APIRILEKO BAROMETROA. Hemen eskuragarri: https://www.cis.es/cis/export/sites/default/-Archivos/Marginales/3200_3219/3210/es3210mar.pdf
- BOLUNTARIOTZAREN EUSKAL KONTSEILUA. *Boluntariotzaren Euskal Estrategia 2021-2024*. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Gasteiz, 2021. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/boluntariotzaren-euskal-estrategia-2021-2024/>
- EUROPAKO BATZORDEA. Europako Parlamentuaren 75.2 Eurobarometro Berezia. Boluntariotza. Brusela: Komunikazioko Zuzendaritza Nagusia, 2011. Hemen eskuragarri: http://www.europarl.europa.eu/pdf/eurobarometre/2011/juillet/04_07/eb%2075_2_%20synthese%20analytique%20benevolat_es.pdf
- EUROPAKO BATZORDEA. TNS Political & Social. 373. Flash Eurobarometroa. Demokrazia parte-hartzailearekiko konpromisoa. Brusela: Komunikazioko Zuzendaritza Nagusia, 2013. Hemen eskuragarri: <http://ec.europa.eu/COMMFrontOffice/publicopinion/index.cfm/Survey/getSurveyDetail/instruments/FLASH/surveyKy/1118>
- EUROPAKO BATZORDEA. Living conditions in Europe. Brusela: Komunikazioko Zuzendaritza Nagusia, 2018. Hemen eskuragarri: <https://ec.europa.eu/eurostat/documents/3217494/9079352/KS-DZ-18-001-EN-N.pdf/884f6fec-2450-430a-b68d-f12c3012f4d0>
- Europako Ekonomia eta Gizarte Komitea (EEGK). Irizpena, Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordearena; gaia: «Boluntariotza: herritarrak Europaren etorkizuna eraikitzen» (ekimenezko irizpena) (OJ C, C/152, 06.04.2022, 19. or., CELEX: <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/TXT/?uri=CELEX:52021IE3078>).
- ESPAINIA. 45/2015 Legea, ekainaren 14koa, Boluntariotzarena. Estatuko Aldizkari Ofiziala (BOE), 2015eko urriaren 15ekoa, 247. zk., 95.768. or.
- EUSKADI 17/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, Boluntarioei buruzkoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 1998ko uztailaren 13koa.
- EDE FUNDAZIOA. EAeko boluntariotzari buruzko azterlana: kuantifikazioa eta ezaugarriak, 2012. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2012. Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/voluntariado_en_euskadi/eu_situgene/adjuntos/Estudio%20sobre%20voluntariado%20en%20la%20CAPV_eusk.pdf
- EDE FUNDAZIOA. Boluntariotza eta partaidetza sozialerako beste modu batzuk EAEn 2017. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2018. Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/estrategia_voluntariado_2017/eu_def/adjuntos/VOLUNTARIADOCAPV2018_02042018.EU.pdf

- EUSTAT. Biztanleen udal-estatistika (2022).
- EUSKO JAURLARITZA. LEHENDAKARITZA. PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA. 68. Euskal Soziometroa. Kultura Demokratikoa. 2018. Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/sociometro_vasco_68/es_def/adjuntos/18sv68.pdf
- ESPAINIAKO BOLUNTARIOTZAREN PLATAFORMAREN BEHATOKIA. La acción voluntaria en 2022. Madril: Espainiako Boluntariotzaren Plataforma, 2023. Hemen eskuragarri: <https://plataformavoluntariado.org/wp-content/uploads/2022/11/laaccionvoluntaria-2022.pdf>
- EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN BEHATOKIA. Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren Liburu Zuria. Bilbo: Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren Behatokia, 2020. Hemen eskuragarri: https://3seuskadi.eus/wp-content/uploads/LibroBlanco_DEF_2019-2020_eus-comp.pdf
- LANAREN NAZIOARTEKO BULEGOA. ESTADISTIKA SAILA. Borondatezko lana neurtzeko gidaliburua. Geneva: Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2011. Hemen eskuragarri: http://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/---dgreports/---dcomm/---publ/documents/publication/wcms_167833.pdf
- LANAREN NAZIOARTEKO BULEGOA. Lanaren, okupazioaren eta lan-indarraren azpierzabileraren estatistikei buruzko Ebazpena, 2013. Hemen eskuragarri: https://www.ilo.org/global/statistics-and-databases/standards-and-guidelines/resolutions-adopted-by-international-conferences-of-labour-statisticians/WCMS_234036/lang-es/index.htm

6. ERANSKINA

6.1 Galdetegia

GUZTIONTZAT: PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA

1.G. Nola identifikatzen duzu zeure burua? 2.G. Zenbat urte dituzu? _____urte)

Gizonak	1
	2
Bietako bat ere ez.	3

Birkodetu.

18 baino gutxiago	1	<i>Inkestaren amaiera</i>
18-30 bitartean	2	
31 eta 45 bitartean	3	
45 eta 65 bitartean	4	
65 baino gehiago	5	

3.G. Zer udalerritan bizi zara? _____

4.G. Zer herrialdetan jaio zara? _____

Birkodetu.

Araba	1	Gipuzkoa	3	Atzerritarra	5
Bizkaia	2	Estatua	4	Idatzi herrialdea _____	

5.G. Zer ikasketa-maila duzu? *Amaitutako ikasketak izan behar dira*

Ikasketarik ez	1
Lehen Hezkuntza (OHO, Oinarrizko Batxilergoa, Lehen Hezkuntza)	2
Bigarren Hezkuntza (DBH, Goi-mailako Batxilergoa, IEE, BBB, UBI)	3
Lanbide Heziketa	4
Unibertsitate-ikasketak (gradu-ikasketak, diploma, lizentzia, doktoretza)	5
Bestelakoak. Idatzi zein _____	6

6.G. Zer lan-egoera duzu (jarduera nagusia)?

Besteren konturako langilea	1	7. galderara joan
Norberaren konturako langilea (autonomia)	2	7. galderara joan
Langabea (lana bilatzen)	3	8. galderara joan
Ikasten	4	
<i>Ez-aktiboa (16 urtetik beherakoak edo 65 urtetik gorakoak, etxeko lanak egiten dituztenak, lanerako ezgaituta daudenak, aurretik erretiratuak, lana bilatzen ez dutenak, eta abar)</i>	5	
Beste batzuk (enplegu-erregulazioko espedienteak, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak...). Adierazi zein _____	6	

7.G. [6. galderaren 1. eta 2. kat.] Zer lanaldi mota duzu?

Lanaldi osoa	1
Lanaldi partziala	2
Beste batzuk: lanaldi murriztua...	3

BOLUNTARIOTZARI ETA PARTAIDETZA SOZIALARI BURUZKO GALDERAK

A) BOLUNTARIOTZA ANTOLATUARI BURUZKO GALDEREN BLOKEA

Orain, antolakundeetan boluntario izateari eskaintzen diozun denborari buruzko zenbait galdera egingo dizkizut. Lehenik, **AZKEN URTEARI** buruzko datuak nahiko nituzke...

8.G. Boluntarioa zara edo izan zara irabazi-asmorik gabeko antolakunderen batean? ⁴⁹	Bai	1
	Azken urtean ez, baina lehenago bai	2
	Ez	3

	9.G. Eta bestelako antolakunderen batean borondatezko lan ordaindu gabea egin duzu AZKEN URTEAN (hau da, zentro erlijiosoetan, sindikatuetan, lanbide-elkargoetan, alderdi politikoetan...)?		
	Bai	Azken urtean ez, baina lehenago bai	Ez
a) Zentro erlijiosoa (parrokia, meskitak...)	1	2	3
b) Sindikatuak, lanbide-elkarteak/elkargoak, enpresa-elkarteak	1	2	3
c) Alderdi politikoak	1	2	3

A.1) INOIZ BOLUNTARIO IZAN EZ DIRENENTZAKO EDO NOIZBAIT BOLUNTARIO IZAN ARREN GAUR EGUN EZ DIRENENTZAKO GALDERAK [8. galderaren 2. eta 3. kat.] 10.G.

10.G. [8. galderaren 2. kat.] **Zergatik utzi zenion elkarteetan boluntario izateari? Zer arrazoi izan zenuen borondatezko lana uzteko? Galdera irekia.**

11.G. [8. galderaren 2. eta 3. kat.] **Zer aukera dago etorkizun hurbilean elkarte batean boluntario aritu zaitezene?**

Aukera asko	1	Jo 23. galderara
Aukera nahiko	2	
Aukera gutxi	3	Jo 12. galderara
Batere aukerarik ez	4	

12. G. [11. galderaren 3. eta 4. kat.] **Zergatik ez? Galdera irekia. Idatzi erantzuna.**

--- Jarraitu 23. galderan ---

⁴⁹ Irabazi-asmorik gabeko erakunde edo elkarte batean derrigorrezkoa ez den lan ordaindu gabea egiteari dedikatutako denboraz ari gara

A.2) AIPATUTAKO ANTOLAKUNDEETAKO BATEAN BEHINTZAT BOLUNTARIO ARITZEN DIRENENTZAKO GALDERAK [8. galderaren 1. kat.]

13.G. Elkarte edo antolakunderen batean baino gehiagotan aritzen zara?

Bai	1
Ez	2

14.G. Zer jarduera-eremutan dago boluntario aritzen zaren antolakundea?
Erantzun bakarra aukeratu behar duzu. Antolakunde batean baino gehiagotan aritzen bazara, denbora gehien ematen diozun hori adierazi.

Garapenerako nazioarteko lankidetzak (GGKE)	1
Eremu zibikoa (auzo-elkarteak, ikasleen gurasoenak, emakumeenak, adinekoenak, gutxiengo etnikoenak, eragindako familienak, LGTBIQ kolektiboarenak...)	2
Artistikoa eta kulturala (euskara, dantza, folklorea... barne)	3
Enplegua (enplegu-sustapena, gizarteratu eta laneratzeko laguntza, ekintzailletza...)	4
Gizarte-ekintza (bazterketa-egoeran edo -arriskuan daudenen, desgaitasunen bat dutenen, osasun mentaleko arazoak dituztenen eta abarren elkarteak)	5
Ingurumena	6
Aisialdia eta denbora librekoa (gazteak, denbora libreko elkarteak)	7
Osasuna (adikzioak, drogazaletasuna... barne)	8
Giza eskubideak	9
Kirola	10
Beste batzuk (adierazi zein)_____	11
ED/EE	99

15.G. Zergatik aukeratu zenuen antolakunde hori? Zer arrazoi izan zenuen antolakunde hori aukeratzeko boluntario aritzeko? *Galdera irekia.*

16.G. Oro har, nola laguntzen duzu antolakundean? *Aukera bakarra hautatu, ohikoena.*

Aurrez aurre	1
Online	2
Bietara (aurrez aurre nahiz online)	3

17.G. Zer lan mota egiten duzu antolakundeetan? *Antolakunde batean baino gehiagotan aritzen bazara, denbora gehien dedikatzen diozun hori adierazi.*

Antolakundearen jarduera zehaztuta edo aldizkakoetan parte hartzen dut (ALDIZKA EDO NOIZEAN BEHIN) (ohikoak edo erregularrak ez diren lanak; une jakinetakoak, boluntarioak behar badira...)	1
Antolakundearen ohiko jardueretan parte hartzen dut (OHIKOA EDO JARRAITUA) (elkarteak antolatzen dituen ohiko jardueretan, maiztasunez eta ez soilik une zehaztuta...)	2
Beste bat, zein? _____	3

18.G. [17. galderaren 2. kat.] Gutxi gorabehera, zenbat ordu ematen dituzu antolakundeetan borondatezko lanean ASTEAN? _____

Birkodetu hemen:

Astean ordubete baino gutxiago	1	Astean 10 eta 15 ordu bitartean	4
Astean 1 eta 5 ordu bitartean	2	Astean 15 eta 20 ordu bitartean	5
Astean 5 eta 10 ordu bitartean	3	Astean 20 ordutik gora	6

19.G. Zer boluntario-lan egin ohi duzu antolakundeetan? *Aukera bakarra hautatu, ohikoena.*

Kudeaketa eta administrazioa (batez ere, kudeaketa-lanak eta antolakundeari euskarri nahiz laguntza teknikoa emateko lanak egiten ditut)	1
Zuzeneko esku-hartzeak (zure zeregina zuzeneko arreta ematea eta pertsonekin edo taldeekin esku hartzea da)	2
Kudeaketa eta administrazioa zein zuzeneko esku-hartzea (ezin dut bat ala beste aukeratu, biak proportzio berean egiten ditudalako)	3
Mantentze-lanak (batez ere, mantentze-lanak egiten ditut antolakundeetan: instalazioak, ekipo informatikoak...)	4
Ordezkaritza-lanak (antolakundeetan, batez ere, antolakundea hedabideetan, koordinadoreetan edo sareko lantaldeetan ordezkatzen egiten dut lan)	5
Sare sozialen, webaren eta komunikabideen kudeaketa	6
Beste zeregin mota batzuk. Adierazi zein _____	7

20.G. Nola ezagutu zenuen antolakundea?

Aukera bakarra hautatu, ohikoena.

Ezagunen, lagunaren edo senidearen bidez	1
Kaleko publizitate-kanpainaren bidez (liburuxkak, kartelak, pankartak...)	2
Prentsako, irratiko eta telebistako publizitate-kanpainak	3
Hitzaldien, biltzarren edo antzeko jardueren bidez	4
Interneten (webguneak, sare sozialak)	5
Erakunde publikoak, gizarte-zerbitzuak	6

Boluntariora-agentziak edo -plataformak	7
Ikastetxea / unibertsitatea	8
Entitatean laguntzen duten beste boluntario batzuen bidez	9
Entitatearen erabiltzailea izan nintzen	10
Erabiltzaile baten senidea naiz	11
Beste batzuk. Adierazi zein: _____	12

21.G. 0tik 10erako eskalan, zenbateraino zaude POZIK antolakundeetan egiten duzun lanarekin? 0 batere pozik da, eta 10 oso pozik.

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Ez nago batere pozik			Pozik nago		Indif.	Satisfecho/a		Muy satisfecho/a		
Ez nago pozik			Oso pozik nago							
Berdin zait										

22.G. Etorkizunera begira, esaldi hauetako zein dator bat boluntario gisa dituzun asmoekin? Erantzun bakarra hautatu.

Datozen urteotan, boluntario-lanean jarraituko dut	1
Batzuetan, boluntario izateari uztea pentsatzen dut	2
Ziurrenik, boluntario izateari utziko diot laster	3

B) PARTAIDETZA SOZIALERAKO BESTE MODU BATZUEI BURUZKO GALDEREN BLOKEA

Orain arte, gizarte-erakundeetan (irabazi-asmorik gabeko elkarteetan, sindikatuetan edo alderdi politikoetan) duzun parte-hartzeari buruz galdetu dizut. Galdera hauek, ordea, partaidetza sozialerako beste modu batzuei buruzkoak dira.

23.G. Zenbait jardura aipatuko ditut. Arren, esan AZKEN URTEAN horietako bakoitza egin duzun ala ez:

	Bai	Ez
a) Produktu edo zerbitzu jakinak erostea edo erosteari uztea, arrazoi etikoak, politikoak, ingurumenekoak edo bestelakoak direla eta.	1	2
b) Kanpainaren bat babesteko sinboloak jantzita eramatea edo ikusteko moduko leku batean jartzea (banderak balkoietan, profil-irudia sare sozialetan, eta abar)	1	2
c) Manifestazioetan edo kontzentrazioetan parte hartzea	1	2
d) Grebetan parte hartzea	1	2
e) Odola ematea edo osasunaren arloko bestelako laguntzak ematea, ordainik jaso gabe	1	2
f) Arropa, mantak edo bestelako gauzak ematea	1	2

<i>Etxean pertsonak hartzea (Txernobyngo haurrak, errefuxiatuak...)</i>	1	2
<i>h) Hedabideren batean iritzi politikoak edo eduki sozialekoak adieraztea (hau da, sare sozialetan, blog pertsonaletan, zuzendariei bideratutako gutunetan eta abarretan informazio politiko eta soziala ematea)</i>	1	2

24.G. [23h galderaren 1. kat.] **Zer bitarteko erabili zenuen iritziak emateko?**

Internet (sare sozialak, blog pertsonalak...)	1
Inprimatutako hedabideak (egunkaria, aldizkariak...)	2
Biak	3
Ez dut gogoratzen	4

	BAI	EZ
i) Administrazio publikoari edo enpresei arrazoi politiko, etiko edo ingurumenekoak tarteko egiten zaizkien eskaerak sinatu edo babestea (eskaerak sinatu edo sortzea online, aurrez aurre, posta elektronikoaren bidez, ohiko postaren bidez, sare sozialetan...)	1	2

25.G. [23i galderaren 1. kat.] **Nola egin zen sinadura-bilketa edo eskaera hori?**

Aurrez aurre	1
Internet bidez	2
Biak	3
Ez dut gogoratzen	4

26.G. AZKEN URTEAN, antolakunderen batekoa izan zara, edo, gaur egun, bazara? Antolakunderen bateko bazkidea edo afiliatua zara edo izan zara? *Antolakundearen kuota egonkorra ordaintzeaz ari gara, hau da, antolakundeko kide izateaz ("izena emanda egoteaz").*

	BAI	EZ
a) Irabazi-asmorik gabeko elkarteak edo antolakundea	1	2
b) Zentro erlijiosoa (parrokia, meskita...)	1	2
c) Sindikatuak, lanbide-elkargoak edo enpresa-elkarteak	1	2
d) Alderdi politikoak	1	2

27a.G. AZKEN URTEAN, irabazi-asmorik gabeko antolakunde edo elkarteren bati laguntza ekonomikoa eman diozu?

	BAI	EZ
a) Irabazi-asmorik gabeko elkarteak edo antolakundea	1	2

28a.G. Zenbateko maiztasunarekin lagundu duzu?

Ohikotasunez (hainbat aldiz lagundu dut)	1
Une jakinetan (inoiz lagundu izan dut, uneren batean)	2

27b.G. Zentro erlijiosoren bati laguntza ekonomikoa eman diozu (parrokia, meskita...)?

	BAI	EZ
b) Zentro erlijiosoa (parrokia, meskita...)	1	2

28b.G. Zenbateko maiztasunarekin lagundu duzu?

Ohikotasunez (hainbat aldiz lagundu dut)	1
Une jakinetan (inoiz lagundu izan dut, uneren batean)	2

27c.G. Sindikatu, lanbide-elkargo edo enpresa-elkarteren bati ekonomikoki lagundu diozu?

	BAI	EZ
26c) Sindikatuak, lanbide-elkargoak edo enpresa-elkarteak	1	2

28c.G. Zenbateko maiztasunarekin lagundu duzu?

Ohikotasunez (hainbat aldiz lagundu dut)	1
Une jakinetan (inoiz lagundu izan dut, uneren batean)	2

27d.G. Alderdi politikoren bati ekonomikoki lagundu diozu?

	BAI	EZ
d) Alderdi politikoak	1	2

28d.G. Zenbateko maiztasunarekin lagundu duzu?

Ohikotasunez (hainbat aldiz lagundu dut)	1
Une jakinetan (inoiz lagundu izan dut, uneren batean)	2

29.G. AZKEN URTEAN, jarduera hauetakoren bat antolatzen parte hartu duzu, borondatez, zure auzo, herri edo udalerrian?

	Bai	Ez
a) Jarduera ludikoak, kirolak edo kulturalak (futbol-talde bat entrenatzea, lasterketak, maratoiak edo bestelako kirol-jarduerak antolatzen laguntzea, egun seinalatuetan laguntzea — hala nola auzoko jaietan, Olentzeroren egunean, San Joan jaietan... —, jarduera antolatu batean begirale aritzea...)	1	2
b) Jarduera zibikoak (auzolana, Administrazioak sustatutako partaidetza-prozesuak — barruti-kontseiluak, kasu —, larrialdietan laguntzea, babes zibila, ekitaldi handiak...)	1	2

c) ELKARTASUN INFORMALARI BURUZKO GALDERAK

Amaitzeko, bestelako elkartasun-ekintzetan zer-nolako parte-hartzea izan duzun jakin nahiko genuke. Zehazki, **FAMILIAKOAK EZ DIREN** pertsoneri borondatez emandako laguntzaz ari gara.

30.G. Horretarako, eman ahal izan dituzun hainbat laguntza mota aipatuko ditut. Arren, adierazi AZKEN URTEAN laguntza horietakoren bat eman duzun eta nori lagundu diozun. Gogoratu familiakoak ez diren pertsoneri buruz ari garela (auzokideak, lagunak, eta abar)

	Bai	Ez	Nori?
a) Etxeko lanetan laguntzea (arropa garbitzea, janaria prestatzea, lisatzea, jostea, eta abar)	1	2	
b) Hirugarren bat zaintzen laguntzea (adinekoak, adingabeak —esaterako, gaixorik dauden haurrak zaintzea gurasoak lanera joan behar direnean—, maskotak zaintzea —adibidez, bidaiaren bat egin behar denean—...)	1	2	
c) Bidelagun aritzea eta bisita egitea, adibidez (bankuan, administrazioan edo bestelakoetan erosketak edo izapideren bat egiten laguntzea, medikuarenera joatea, pertsonen garraiatzen laguntzea, eta abar)	1	2	
d) Etxeko gauzak konpontzen laguntzea (jarioa duen txorrota, zarata egiten duen ate bat edo beste zerbait konpontzea)	1	2	
e) Laguntza ekonomikoa ematea partikularrei (dirua mailegatzea)	1	2	
Etxea kudeatzeari buruzko aholkularitza edo aholku profesionala (aholkularitza juridikoa edo ekonomikoa ematea, fakturak kudeatzea, eta abar)	1	2	
g) Beste laguntza batzuk. Zein:	1	2	

Ez baduzu laguntza informalik ematen, AMAITU INKESTA

31.G. Nola deskribatuko zenuke eman duzun laguntza hori? Erantzun bakarra hautatu. Hainbat aukera egon daitezke; esaterako, noizean behin laguntza mota bat ematen duzu, baina ohikotasunez beste bat. Laguntzaren bat ohikoa bada, aukera hori markatu.

Une jakinetan eman dituzun laguntzak dira (ALDIZKA EDO NOIZEAN BEHIN) (une jakin batean beharra sortu da; ez da ohikoa; premiazko egoerak edo egoera zehatzak dira...)	1
Ohikotasunez ematen dituzun laguntzak dira (OHIKOA EDO JARRAITUA) (maiztasunez egiten dituzu; ez diote behar zehatz bati erantzuten, ohiko kontua baitira...)	2
Beste bat, zein? _____	3

32.G. OHIKOTASUNEZ LAGUNTZEN BADUZU soilik [31. galderaren 2. kat.] Laguntza horiei ematen diezun denbora kalkulatu beharko bazenu, ASTEAN gutxi gorabehera zenbat ordu ematen dituzula esango zenuke? ____

Astean ordubete baino gutxiago	1	Astean 10 eta 15 ordu bitartean	4
Astean 1 eta 5 ordu bitartean	2	Astean 15 eta 20 ordu bitartean	5
Astean 5 eta 10 ordu bitartean	3	Astean 20 ordutik gora	6

6.2 Unibertsoa eta lagina: taulak

AZTERTUTAKO UNIBERTSOAREN, ESKURATUTAKO LAGINAREN ETA HAZTATU OSTEKO LAGINAREN BANAKETA, SEXUAREN, ADINAREN, LURRALDE HISTORIKOAREN ETA UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA. ABSOLUTUAK ETA %.

		Unibertsoa	Xede-lagina		Haztatu GA-BEKO lagina		HAZTATUTAKO lagina ⁵⁰	
			%	kop.	%	kop.	%	kop.
GUZTIRA		1.885.123	100,0%	1200	100%	1200	100%	1200
SEXUA	Gizonak	904.496	48,0%	576	46,8%	560	48,0%	576
	Emakumea	980.627	52,0%	624	53,2%	640	52,0%	624
LURRALDE HISTORIKOA	Araba	281.509	14,9%	400	33,5%	402	14,9%	179
	Bizkaia	990.652	52,6%	400	33,3%	400	52,6%	631
	Gipuzkoa	612.962	32,5%	400	33,2%	398	32,5%	390
ADINA	18-30	269.726	14,3%	174	14,1%	169	14,3%	172
	31-45	406.200	21,5%	263	22,9%	275	21,5%	259
	46-65	680.211	36,1%	440	39,6%	475	36,1%	433
	> 65 urte	528.986	28,1%	323	23,4%	281	28,1%	337
UDALERRIAREN TAMAINA	Txikia (< 10.000)	418.833	19,2%	228	12,4%	149	12,4%	148
	Ertaina (10,001 eta 120,000)	997.354	45,6%	552	37,5%	450	44,9%	538
	Hiriburua	770.330	35,2%	420	50,1%	601	42,8%	513

50 Sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren aldagaiak aintzat hartuta haztatu dugu lagina.

FAKTORE GORATZAILEEN BALIOESPENA, SEXUAREN, ADINAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. POPULAZIOA/LAGINAREN POPULAZIOA

		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
		Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
UNIBERTSOA	18 eta 30 bitartean	20.381	19.311	70.606	67.214	47.458	44.756
	31 eta 45 bitartean	32.178	32.151	106.010	106.074	64.903	64.884
	46 eta 65 bitartean	50.635	51.197	176.118	183.636	109.247	109.378
	65 baino gehiago	33.607	42.049	118.531	162.463	74.822	97.514
LAGINA	18 eta 30 bitartean	22	27	27	39	18	35
	31 eta 45 bitartean	42	52	38	57	42	44
	46 eta 65 bitartean	80	78	70	78	80	90
	65 baino gehiago	47	55	50	40	43	46
GORATZAILEAK	18 eta 30 bitartean	926	715	2.615	1.723	2.637	1.279
	31 eta 45 bitartean	766	618	2.790	1.861	1.545	1.475
	46 eta 65 bitartean	633	665	2.516	2.354	1.366	1.215
	65 baino gehiago	715	765	2.371	4.062	1.740	2.120